ARGIA

ETXEBIZITZA ESKUBIDEA AUZITAN EZKERRALDEAN

# Usurpazio kasu baten erabilera mediatikoa, okupazioaren aurka egiteko amarru

22-26.orriak

#2.699 | 2020 / 09 / 13 | 3,90 €

**3.000m² bizitzeko eta mugimendu sozialentzako**

27 I ZIORDIAKO AMARAUNA

**Nola banatu enplegua COVID-19 garaietan?**

36 I EKONOMIA

**1935eko Bertso Gudua, txapelketaren aurrekaria**

44 I KULTURA

Aktualitatearen

# gakoak

5€

**Udan patxadaz gozatzeko**

Erosi ARGIAren Azokan

**AZOKA.ARGIA.EUS · AZOKA@ARGIA.EUS · 943 37 15 45**

ARGIA

ARGIA

2.699 zenbakia | Irailak 13, 2020

## Panorama

**04** | ASTEKO ARGAZKIA
**06** | AKTUALITATEA
**08** | EKONOMIAREN TALAIAN
**09** | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
**09** | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
**JAVIER ZORRILLA / EFE**

## Iritziak

**17** | IRATI LABAIEN
**18** | KATIXA DOLHARE
**19** | AHOZTAR ZELAIETA
**19** | ITXARO BORDA
**20** | PAULINE GUELLE

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
**CLIPART COURTESY FCIT**

## Finkoak

**40** | DENBORAREN MAKINA
**41** | ARGIA KOMUNITATEA
**42** | BIZI BARATZEA
**48** | KULTUR-KRITIKAK
**50** | ZUZENEKO EMANALDIA
**51** | DENBORA-PASAK
**52** | ARGI-KONTRA: LAIA CASADEVALL CASTAÑÉ
**54** | BERANDUEGI

DANI BLANCO

**27** | **ZIORDIAKO AMARAUNA PROIEKTUA**
Xabier Letona kazetariak bisita egin die mojen komentu izandako proiektuan bizi direnei, eta ametsak bete ere egiten direnaren pozez itzuli da. Ezagutu nahi, mundu berria nondik lantzen diharduten? Norbanako eta taldeei dago Amarauna irekia.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

**10** | NET HURBIL
**Agroindustriaren presioaren parean, kolektiboki antolatu dira kazetari bretoiak**
Jenofa Berhokoirigoin

**12** | IMANOL RAYO
**"Artearen mundua gauza exotikoa edo frikia bilakatzera doa"**
Reyes Ilintxeta

**22** | GIZARTEA
**Okupazioaren kriminalizazioak gogor jo du Ezkerraldea**
Andrea Bartolo

**32** | ETXEKO LANGILE EGOILIARRAK
**Lan esklaboa bada, abolitu egin behar da?**
June Fernandez / Pikara Magazine

**36** | EKONOMIA
**Enplegua Banatzeko Kontratu berri bat, enplegua sortzeko eta banatzeko**
Juantxo Bazan / El Salto-Hordago

**38** | EUSKARA
**Iruñean herri haur eskolarik ez da izango**
Gorka Peñagarikano

**44** | KULTURA | BERTSO GUDUA REVISITED
**Txirrita eta Basarri, Aitzolen begiradapean**
Kepa Matxain

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

**Jabetza**
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
**Lehendakaria**
Bego Zuza
**Erredakzioa**
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Eizagirre, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
**Diseinua**
Maitane Gartziandia
**Argazkilaria**
Dani Blanco
**Produkzioa eta inprimaketa**
Antza S.A.L.
**Administrazioa:**
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
**Salmenta**
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
**Idazkaritza**
Aloña Soraluze, Bego Zuza
**Web garapena**
Asier Iturralde
**Informatika**
Iametza interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua**
SS 837-2012
**ISSN**
0213-909X
**Batzorde parekidea**
72562 E

**GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO**

**Posta elektronikoak**
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

**Telefonoa**
943371545

**Gipuzkoa**
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
**Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa**
Xalbardin baita. 64122 Urruña
**Nafarroa**
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

*Ametzagaiña* taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

# Ez da “hilik agertu”

**Igor Gonzalez Solak 15 urte egin zituen Espainiak ezagun egin dituen baldintza negargarrietan, bere gertukoengandik oso urrun. Eta indarrean den legeak dioenaren arabera kalean behar luke. Bizirik. Baina beste preso bat hil da estatuaren ardurapean. Estatuak, ordea, ardura bakarra erakutsi du: bere zaintzapeko pertsonen heriotza ezkutatzea, bere balizko erantzukizuna ukatzea, edo bestela, biktima eta senideak mespretxatzea. Espetxea arma da. Bergizarteratzearen asmoa aspaldi dute sakabanatu. Mendeku eta zigorrerako tresna. Bere buruaz beste egin behar duen bakarra kartzela sistemaren logika maltzur eta zitala da. Mont-de-Marsanen, Puerto de Santa Marian edota Martutenen.**

ARITZ LOIOLA / FOKU  AXIER LOPEZ

ERAILA
Aski da!
ERAILA
Aski da!

**IGOR GONZÁLEZ SOLA EUSKAL PRESO POLITIKOA HIL DA MARTUTENEKO ESPETXEAN. BERE ZIEGAN AURKITU DUTE HILOTZ**

ZIGORRAREN HIRU LAURDENAK BETEAK ZITUEN, HAINBAT SUIZIDIO SAIAKERA EGINAK ZITUEN... BAINA ESPAINIAKO ESTATUAREN ESPETXE POLITIKAK, MENDEKUAN OINARRITUA, PRESO MANTENTZEN ZUEN IGOR. KARTZELAN HIL DIREN 20 EUSKAL PRESO POLITIKO DIRA DAGOENEKO

@IgorMeltxor

IGORREN HERIOTZA INOIZ GERTATU BEHAR EZ ZEN GERTAKARI LAZGARRIA IZAN DA ETA GAUR EGUNGO POLITIKA PENITENTZIARIOAREN BUKAERA BERANDU BAINO LEHEN IRITSI BEHAR DELA ERAKUSTEN DU

Sare

HERIOTZA HAU SAIHESTU ZITEKEEN. BERAZ, EZ DA HERIOTZA ERAILKETA BAINO

@OihanaBartra

SOLA SALBUESPENEZKO ESPETXE POLITIKA KRIMINAL HONEK ERAIL DU

@ekilizar

AHOTSA

# Martín Villa, epailearen aurrean

ARGIA

Rodolfo Martín Villa ministro ohi frankistak María Servini epaile argentinarraren aurrean deklaratu du, gizateriaren aurkako krimenengatik. Telematikoki egin du deklarazioa eta bitartean, memoria historikoaren aldeko erakundeek mobilizazioak antolatu dituzte Euskal Herrian.

78ko Sanferminak Gogoan eta Martxoak 3 elkarteak buru, Iruñeko epaitegien aurrean egin dute kontzentrazioa. "Inpunitateari stop" aldarrikatu dute, ikertu gabeko krimen frankisten aurrean. Euskal Herritik kanpo ere elkarretaratzeak egin dira, hala nola Madrilen eta Asturiasen.

Gasteizko 1976ko sarraskiagatik, 1978ko Sanferminetako gertakariengatik eta Espainiako indar armatuek 1976 eta 1977 urteen artean eragindako beste sei hildakoengatik deklaratu du ministro ohiak. Epailearen aurrean errugabe jo du bere burua eta orain hamar eguneko epea du Servinik auzipetu ala ez erabakitzeko.

## PRESIO POLITIKOA

Egun batzuk lehenago, Felipe González, José María Aznar, José Luis Rodríguez Zapatero eta Mariano Rajoy Espainiako presidente ohiek gutuna idatzi zioten Servini epaileari, Martín Villa babestuz. Presidente ohiek goraipatu dute Martin Villak "demokraziaren alde" egindako lana. Felipe Gonzálezek, esaterako, dio bere jarrera "akatsik gabea" izan zela: "Konpromiso handia hartu zuen zuzenbide estatuarekiko errespetuarekin, hura babestearekin eta garatzearekin".

CeAQUA kereila argentinarraren babeserako Espainiako Estatuko koordinakundeak salatu du gutuna epaiketa baldintzatzeko saiakera bat dela. "Onartezintzat" jo dute Servini epailearen aurkako "presio politikoa" eragiteko saiakera. "Oso injerentzia larria" dela diote, eta Espainiako hainbat indarrek azken urteotan prozesua oztopatzeko izandako jarreraren testuinguru orokorrean kokatu dute. Dena dela, zehaztu dutenez, adierazpenok ez dituzte ikerketak aztertzen dituen gertakariak desagerrarazten.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

# Brontë

ARITZ GALARRAGA

Nerabe garaiko irakurketa ia erabat ahaztuta, Irungo karrika nagusiko 16.enean eskuratu nuen Irene Aldasororen itzulpen bikaina den *Gailur ekaiztsuak*. Bereziki inspiratuta ez nengoen egun batean izan zen, zerbait nahi baina zehazki zer nahi duzun ez dakizun egun horietako batean. Irribarre egin zidan Yleniak, "liburu hori erosten bukatzeko behar izan duzu ordubete?" esan nahi izan balit bezala, "zergatik uste duzu jarri diodala izen hau nire liburu-dendari?"; baina esan, egiaz, "aukeraketa ona egin duzu" esan zidan, egonarririk galdu gabe. Handik gutxira irabazi zuen Aldasororenak Euskarazko Literatura Itzulpenaren Euskadi saria.

Iaz itxi zuten Hondarribiko Olearso liburu-denda ere. Brontëren aldean, beste gauza bat zen Olearso –ni ateratzen nintzen alarde matxistako konpainia ere bai, baina hurrengorako utziko dugu hori–. Bigarren gerra karlistatik bizirik atera ziren bi ahizpek zeramaten, eta, negozioa aurrera ateratzeko prentsaz gain, 80ko hamarkadan pilatutako liburu fondo bat zeukaten, hantxe kieto hauts hartzen. Horregatik maite genuen hain zuzen, orduak pasa genitzakeen bertan harribitxien bila –behin kargu hartu ziguten, hainbeste denbora; espioitzan ari ginela pentsatuko zuten, katalogoa kopiatu nahian–. Atxagaren *Etiopia* poema bildumaren lehen edizio bat eskuratu nuen hala, merkezurrean. Sirène izeneko arropa denda bat dago egun liburu denda zenaren lekuan –eta gaitz erdi, izen horrekin, frantsesen kolonizazioaren lehen zantzua balitz–.

Olearso iaz, aurten Brontë, liburu-denda independenterik gabe geratu da, ez bakarrik Bidasoaldea, Txingudi osoa, 100.000 biztanleko eurohiria. Gertuen geratzen zaiguna orain Donibane Lohitzuneko Le 5ème art da. Jarraituko dugu ordea brontëlagun izaten, brontëlagun isil, uzkur, herabe. Hain herabe, ez baitiot Yleniari hiru urtez liburu-denda independente bati eusteagatik eskerrik eman. Gaur arte. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

## "APIRILEAN PROBA EGIN BALIDATE, MINBIZIA EZ ZEN HAINBESTE ZABALDUKO"

**OLATZ VÁZQUEZ, KAZETARIA**

Apirilean zuen gastroskopia ekainera atzeratu zioten Olatz Vázquez kazetariari, alarma egoeran beste osasun-hitzordu eta ebakuntza andanarekin gertatu bezala. Gastroskopian minbizia atzeman zioten, ordurako metastasi egoeran. "COVID-19ak kutsatu dituenak baino biktima gehiago uzten ari da krisi hau, eta horregatik erabaki dut kontatzea".

**EL CONFIDENCIAL (2020/08/27)**

EKONOMIAREN TALAIAN

# Sasoikako langileak defendatu

JUAN MARI ARREGI

Eleazar Blandon nikaraguarra iazko urritik egon zen Bilbon asilo-eskaria formalizatu ezinik, lehenik sistemaren saturazioagatik eta gero konfinamenduagatik. Dokumentaziorik gabe eta lan egiteko aukerarik gabe, joan den abuztuaren hasieran Andaluziara joan zen bizitzera, Almeriara. Handik, kontraturik gabeko sasoikako langile gisa, Murtziara aldatu zen, baina egun batzuetara hil zen, itzalik eta urik gabe eta 44 gradutik gora sandiak deskargatzen aritu ondoren, 12 orduko lanaldietan. Lanean zorabiatuta erori zenean, kamioi batean sartu zuten, eta bakarrik utzi zuten ambulatorioaren atean. Bertan hil zen, osasun-langileen eskuetan.

Langile nikaraguarraren zoritxarreko istorio hori sasoikako langileek, horietako asko migratzaileak, lan egiten duten baldintza eskasen adierazgarri da. Euskal Herria, Errioxa eta Nafarroa dira, bereziki, hilabete hauetan mahats -bilketaren ondorioz sasoikako langile asko hartzen dituzten lekuetako batzuk. Eleazar bezala, milaka etortzen dira gurera ordu askotako lanaldi luzeak egitera, soldata eta baldintza oso eskasetan, oro har.

Administrazio publikoa, enpresak, sindikatuak eta gizarte-mugimenduak jakitun dira urtero prekarietate egoera horiek errepikatzen direla. Beharrezkoa da erne egotea eta pertsona horien eskubideak babestea. Horietako asko oso kalteberak dira gainera, migratu egin dutelako eta langabezian daudelako. Orain, sasoikako langile gisa, etxebizitza eta lan-baldintzek are gehiago larriagotzen dute haien egoera hondatua.

Guztion erantzukizuna da, bai erakundeena nola enpresena eta herritarrena, hori arintzen laguntzea. Nola? Beren eskubide guztiak babestuz eta defendatuz. ●

ANALISIA

# Bozgabetuak eta Banksy efektua

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Zenbat gertakari latz isilean pasa diren uda honetan ere... Gose grebaren 238. egunean ukan genuen Ebru Timtik abokatu kurduaren berri: berantegi, bere heriotzaren berri ukan genuen, ez ordea epaiketa justu bat lortzeko eskaerarena. Palestinarrek ere agorrila bonbapean pasa zuten, Mendebaldearen uda-giroa batere trabatu gabe. Gazako puxika lehergarriak vs. Israelgo bonba hilgarriak... baina berdin dio agorrilaren azken egunean aipamentxoa, "akordioa" lorturik puxikarik ez da gehiago airatuko –aipamen guti Israelek jaurtiki bonbei buruz–. Eta zenbat dira iritsi ere ez zaizkigun albisteak? Zenbat injustiziaren berri eman eta berriz eman, baina isilarazi dituzte boteredunen aldean diren prentsa-agentzia eta komunikabideek? Zenbat gorputz irentsi ditu Mediterraneoak? Itotzekotan ziren zenbat lagun ontziratu, baina oraindik dira noraezean itsasoaren erdian, estatu bakar batek ere ez dielako porturik eskaini nahi? Agintari europarren zenbat erabaki xenofobo ez ditugu jakin? Eta horra hor bat-batean *mainstream* komunikabide orotan dela injustizia: ontzi berri bat itsasoratu da, jada 219 ditu heriotzaren atzaparretatik salbatu. Milesker Banksy street-artista anonimo baina ospetsu dirudunari, Louise Michel izeneko ontzia finantzatu izanak gaia berriz zor zaion lekuan jarri duelako –oren labur batzuentzat ez bazen ere–. Baina batez ere eskerrak Pia Klemp ontziko kapitainari, berea "ekintza humanitarioa ez, baina bai borroka antifaxista" dela argitzeagatik. Hitzen hautaketak garrantzia duelako, izena eta izanaren arteko (des)loturak errealitate bat argiratu ala kamuflatu egiten duelako. Milesker Parisek eskaini zion medaila errefusatzeagatik, "hipokritatzat" joz agintariak. Zeren bai, sistematikoki mugak hesten dabilen immigrazio-politika antolatu eta instituzional hau arrazista da, xenofoboa eta hiltzailea. Palestina itotzen dabilen harresian 2005ean Banksyk egindako muralaren gisara –hor ere puxikak, Israelen tiroen sinbolo– beste hamaika behar liratezke, bozgabetuen ondoan. Banksy gabe, iduriz ez direlako aipagai zapalduen eskubide urraketak. Samingarria, eta naski horrek ere berdin segituko du ezberdina nahiko genukeen koronabirusaren krisi globalaren biharamunean. ●

USURBILGO NOAUA

## KE ZUTABEA ZUBIETAKO ERRAUSTEGITIK

DONOSTIA. Joan den astean, Zubietako erraustegiaren inguruko mendi aldean barrena isurtzen ari zen ke zutabe ikusgarriaren irudiak zabaldu zituen *Usurbilgo Noaua* agerkariak. Ofizialki "probaldi" fasean segitzen du erraustegiak eta aste gutxi barru guztiz martxan jartzea da sustatzaileen asmoa.

## ENPLEGUA

**15,18 milioi**

pertsonak ez zuten enplegurik Europar Batasunean, joan den uztaileko datuen arabera. Espainiako Estatua eta Grezia dira estatistiketan okerren agertzen diren bi estatuak.

435 milioi emakume muturreko pobrezian biziko dira 2021ean, NBEn arabera. Emakumeak izango dira pandemiaren biktima ekonomiko nagusiak.



## David Graeber antropologo eta ekonomialari anarkista hil da

LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Irailaren 2an hil da David Graeber azken urteetako pentsalari anarkista ezagunenetakoa, 59 urterekin. 1961ean New Yorken jaioa, antropologo eta militante anarkista amerikarra zen, joera libertarioko pentsalaria. Burokraziari eta kapitalismoari egiten zion kritika akademikoagatik ezaguna, Londresko Ekonomia Eskolan irakasle zen hil zen garaian.

### AKTIBISTA

Kurduen askapen mugimendua modu irekian babestu zuen, bereziki Rojavan ikusteko aukera izan zuen "esperimentu demokratikoa". Aktibismoan aritua, Occupy Wall Street mugimenduaren sorreran protagonismoa izan zuen, eta berari egozten dio jende askok "%99a gara" leloaren sorrera.

### BERE OBRA

*Zorra: lehen 5.000 urteak* liburuak (2011) mundu mailako ospea eman zion. Dirua oinarri duten harreman sozial guztien atzean dagoen indarkeria aztertu zuen lan horretan. Berriki *Bullshit Jobs: A theory* liburua argitaratu zuen, lanari eta prekarietateari buruz. Bertan defendatzen du kapitalismoa "pitorik balio ez duten" lanpostuak sortzen ari dela, aitortza sozial handia dutenak, bizitzari eusteko ezinbesteko lanak inolako aitortzarik gabe mantentzen dituen bitartean.

**LEHENDAKARIA.** Eusko Legebiltzarrak Iñigo Urkullu aukeratu du Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lehendakari kargurako, eta buruzagi jeltzaleak hirugarren agintaldiari ekingo dio Eusko Jaurlaritzan. EAJko hautagaiak aldeko 40 boto jaso ditu, eta Maddalen Iriarte EH Bildukoak 21.

**HEZKUNTZA.** Sindikatuek EAEko hezkuntzan greba deitu dute irailaren 15erako. Eusko Jaurlaritzak ikastetxeetara buelta langileak kontuan hartu gabe eta neurri aski hartu gabe egin duela salatu dute. Ikasgeletara itzulera "ziur eta adostua" exijitzeko xedez egingo da greba.

**MURGILTZE EREDUA.** Hautetsiak zein hezkuntza sistemako ordezkariak elkartu dira Hiriburuko Baste Quieta eskola publikoaren aitzinean, euskarazko murgiltze eredu publikoa aldarrikatzeko. Paristik jasotako ezezkoaren aitzinean, "borrokan segitzeko" asmoa plazaratu dute.

# **AGROINDUSTRIAREN PRESIOAREN PAREAN,** KOLEKTIBOKI ANTOLATU DIRA KAZETARI BRETOIAK

Agroindustriaren sektoreaz informatzeko orduan, "benetako omertà" egoeran kausitzen dira kazetari bretoiak. Inork ez du hitz egin nahi eta hitz eginez gero presioak, mehatxuak, auzibideak zein zentsurak dituzte ordainean. Sektore indartsua delako agroindustriarena Bretainian; diruaren eta irabazitako kargu politiko zein sindikalen bidez hitza kontrolatzen dabilena. Hori horrela, Kelaouiñ kolektiboa osatu dute kazetari batzuk, alarma gorria pizteko baita ere, nola ez, haien buruak babesteko eta informazio-eskubidea defenditzeko.

**JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

Kelaouiñ –"informatu" bretoieraz– horra kolektiboari jarri dioten izena. Elkartu, indarrak batu eta informazio-eskubidea errespetarazteko behar gorria sentitu dute Bretainiako hainbat kazetarik. Errealitate bati buruzko galderak luzatzerakoan gutxi direlako erantzutera ausartzen, justuki erantzunez gero arazoak hasten direlako. Errealitate hau agroindustriarena da, Bretainian pisu handia duena: bigarren sektoreko enpleguen %42 honetan dira, urtean 19,5 miliar euroko negozioa dakar, hots, lurraldea pobreziatik aterarazi zuen sektorea da. Eta, pisua botere bilakaturik du diruaren zein kargu sindikal eta politikoen bidez. "Omertà" egoera salatzen du Kelaouiñ kolektiboak: "Debekatua zaigun leku izaten segitzen du agroindustriak".

Ereduaren sustatzaile kartsuak –FNSEA nekazari sindikatua, honen esku izan ohi diren laborantza ganberak eta sektoreko enpresak– kazetaritza bideratzen dabiltza, nahi edo ez. "Agroindustriaz idazten baduzu, badakizu zuzendaritzak xeheki berriz irakurriko zaituela. Kontra direnei ematen bazaie hitza, bai ala bai tokia eman beharko zaie FNSEA, laborantza gabera edota agro-industriaren ordezkariei –toki gehiago gainera–. Alderantziz, agroindustriako proiektu berri bati buruzko artikulu batean ez duzu usu kausituko aurkakoen hitzik", dio anonimotasuna atxiki nahi izan duen kazetari batek *Mediapart* komunikabideari. Lehen sektorean garaturiko aktibitate intentsiboez informatzeko orduan mehatxuak, presioak, zentsurak zein auzibideak kausitu ohi dituztelako. "Laborantza ganbera batetik SMS bat errezibitu nuen abisatuz salaketa jarri nahi zutela. Ondotik ikerketa laboratorio batek bidali zidan email bat *fake news*-ak idatzi nituela erranez eta zuzenketak argitaratzea eskatuz, gehituz errefusatzen banuen auzitara joko zutela, difamazioagatik", kontatzen dio *Mediapart*-i kazetari bretoi batek. Anonimotasuna atxikitzeko beharra sentitzen du honek ere –funtsean, "Omertà apurtu: agroindustriaren parean kazetari bretoiak baturik" (*Briser l'omerta: des journalistes bretons s'unissent face aux pressions de l'agro-industrie*) erreportajean izen-abizenak gordez hitz egiten dutenen kopuruak anitz dio presioaren heinaz–. Egoeraren larritasuna ikusirik, prentsa askatasunaren eskualde mailako behatokiaren sorrera exijitzen die Kelaouiñ-ek instituzioei. Nola ez egitura independentea litzateke, inolako lanjer eta presiorik gabe ikerketa lana egin ahal izateko baldintzak segurtatzeko helburuari segi osaturikoa.

## INES LERAUDEK AZALERATUA

Bretainiako kostetan zabalduriko alga berde toxikoen errealitatea argitzeagatik ezagun egin da azken urteetan Ines Leraud kazetaria. Eta gaitz erdi, ikerketa lan horrengatik jasandako presioei esker ukan dugu agroindustriaren jukutrien berri –hots, agroindustriaren errealitateaz informatzeko eskubidea oztopatu nahian dabiltzanak ez direla soilik Hegoko herrialdeetan, eta gurean ere ditugula izua sortuz kazetariak isilarazteko logikan dabiltzanak–. 2015az geroztik Bretainian bizi da eta agroindustriaren boterea ikertzen dabil, *France Culture* zein *Disclose* komunikabideentzako besteak beste. "Alga berdeak: historia debekatua" (*Algues vertes: l´histoire interdite*) komikiari esker nekazaritza eredu horren ondorio ekologikoak ere plazaratu zituen 2019an.

70eko hamarkadaz geroztik Bretainiako hondartzak estaltzen dituzten alga berdeen, hondartza horietan izandako heriotz misteriotsuen –hiru lagun eta berrogei bat animalia hilik– eta algek hazteko ezinbesteko duten nitratoaren arteko lotura frogatu du –nitratoaren oinarrian laborantza intentsiboa kokatuz–. Oztopoak gaindituz frogatu du heriotzen oinarria: idortzerakoan alga berdeek zabaldu gasa biziki toxikoa da eta arnastuz gero heriotza ekar dezake. Uren kutsadura eta alga berdeen presentzia emendatu dira nekazaritza intentsifikatu den arau: 1960an bataz beste 5 mg/litro heina ez zuen gainditzen nitrato kantitateak Bretainiako uretan eta gaur egun 33 mg/litro da (2000 inguruan, hau da, heriotzen garaian 50 mg/litro zen). Laster difamazio auzi bat abiarazi zuten kazetariaren

**ALGA BERDEEN ESKANDALUA**

ALGA BERDEEN OINARRIAN LABORANTZA INTENTSIBOA DELA OHARTARAZTEAGATIK PRESIOAK ETA ZENTSURAK JASOTZEN DITU INES LERAUD KAZETARIAK.

kontra, azkenean epaiketa hasi aitzineko egunetan salaketa ezeztatuz. Leraudek argi du: "Salaketa hauek intimidazio saiakerak dira, isilarazi nahi gaituzte, bai ni, baita hitz egiteko ausardia duten lekukoak ere". Ez da presio bakarra izan: "Eskaera politiko baten harira" Quintineko liburu azokan egitekoa zuen aurkezpena ezeztatu zioten, baita komikia bretoieraz plazaratzeko kontratua ere bai. Zentsura horien berri eman zuen *Le Canard Enchainé* ikerketa-kazetaritza egiten dabilen komunikabide ezagunak.

Skol Vreizh argitaletxe ttipiak aitortzen du: "Dirulaguntzetan izan zitezkeen ondorioez beldur ginen, Eskualdeko Kontseiluan laborantzaren eskumena duenak eragin handia duelako". Hori horrela, dirulaguntzarik ez jasotzeko mehatxupean, auto-zentsura gertatzen da.

Instituzioetan lekuak hartzeko estrategia ez dute gordetzen FNSEAko ordezkari bretoiek: "Lekuak ez baditugu hartzen, gure kontra dabiltzanek dituzte hartuko!" erranez luzatu zien herriko bozetan aurkezteko deia laborariei tokiko FNSEAko presidenteak. Instituzioetatik erabakiak bideratzeaz gain, komunikabideak kontrolatzeko aukera ere dutelako dirulaguntzen bidez: "Orri batzuk erostea norabide editorialean eragitea da". Enpresa pribatuak ere dabiltza horretan. Triskalia, D´aucy, Doux, Chéritel... anitz dira iragarkietara diru zama bat bideratzeko hautu politikoa egina duten enpresa bretoiak.

Leraudek argi du: "Presioen eta zentsuren ondorioz jendea ez da gehiago mintzo, Bretainiako agroindustriari buruzko hitzartzerik ez da gehiago". Ohar horrek balio du komunikabideentzat, baita herritar, hautetsi zein laborari askorentzat ere.

Hitza giltzapeturik atxiki nahian dabil sektorea eta hein handi batean lortzen ere du. Kazetariez gain, "omertà" egoerarekin bukatzeko deia luzaturik dute 41.000 herritarrek ere, "Bretainian bezala edonon, agro-elikagaiaz informatzeko askatasunaren alde" petizioa izenpeturik. Lerauden aldeko sostengu -komite bat ere dabil lanean. Sostengua beharko duelako geroan ere: epailearen aitzinetik pasa beharko du 2021eko urtarrilean. Chéritel Trégor Légumes agroindustrialak du salaketa jarri, *BastaMag*-en plazaratu erreportaje baten harira, aldi honetan ere "difamazioaz" akusaturik. ●

# Imanol Rayo

IRUDIEK EZKUTATZEN DUTENA ERAKUSTEN DIGU

# ARTEAREN MUNDUA GAUZA EXOTIKOA EDO FRIKIA BILAKATZERA DOA

Begiraden indarraz kontaturiko mendeku baten istorioa. Hori da zinemagile nafarrak *Hil kanpaiak* bere lan berrian bildu duena. Euskal zinemagintzako beste ahots indartsu bat, aurten Zinemaldian mundu zabaleko beste zinemagile berriekin lehian arituko dena.

REYES ILINTXETA DANI BLANCO

**Nola iritsi zen Imanol Rayo zinemara?**

Zinema beti egon da hor, beste elementu asko bezala. Azken finean, bizitzan zehar, eta nerabezaroan bereziki, zure gustuak eta joerak garatzen zoaz poliki-poliki eta zinema enfokatzeko nire modua prozesu horretatik dator. Batxilergoko urteak oso erabakigarriak izan ziren niretzat. Iturrama Institutuan ikasi nuen eta gauza asko jorratu genuen artea eta literaturaren munduan. Oso aberasgarria. Andoaingo urteak gehiago izan ziren esperientzia bat. Banekien zer aurkituko nuen. Deskubrimenduak lehenago heldu ziren. Ni, dena den, ez naiz eskolen zalea. Gauzak lantzeko trebetasuna eta joera behar dituzu gehienbat. Hori da garrantzitsuena, nire ustez.

**Nola dago gaur egun zazpigarren artea?**

Zinema arte popular gisa ulertzeko jarrera amaitua dago. Gaur egun ez du XX. mendean zuen eragin berdina. Zinemak diruaren dependentzia handia du eta gero eta jende gutxiago erakartzen du. Gazteak ez dira joaten zinemara, zinema bera gainditzen duten elementuengatik ez bada: protagonista ezagun bat, abeslari bat... horiek dira erakartzeko ahalmena dutenak, ez filma bera. Zer gertatuko den jakitea oso zaila da.

**Profesionala izatea pentsaezina da zuretzat?**

Zinemagintzan aritzea zerbait militantea bada. Niretzat ez dago horretara modu profesionalean dedikatzeko aukerarik denbora tarte labur eta zehatz batzuetan ez bada. Nik probintzietako bizimodua aukeratu dut. Eguneroko lan bat, bizimodu normala, familia...

Madrilgo edo hiri handietako erokeria horrek asko desgastatzen du. Sortzaile batzuk hitzaldiak, sinposioak eta publizitateari esker bizi dira, zinematik bakarrik bizitzea oso zaila delako. Horretarako irtenbide bakarra litzateke atzerrira joatea eta mota jakin batzuetako pelikulak edo produktuak egitea.

11

# Imanol Rayo Barandiaran

**ARBIZU, 1984**

Imanol Rayo arbizuarra, Andoaingo zine eskolan ikasi ondoren, gidoigintzan trebatu zen Urnietako Sarobe zentroan. Zenbait film-laburren egilea da: "La mosquita muerta", "Leihotik", "No mires al sol" eta "Feliz anyo Oswaldo", besteak beste. "Bi anai" bere lehen filmarekin 2011n Zinemira urteko euskal pelikularik onenaren saria jaso zuen Donostiako Zinemaldian. Orduan Bernardo Atxagaren nobela hartu zuen oinarri eta orain pantaila handira itzuliko da "Hil kanpaiak" lanarekin, Miren Gorrotxategiren "33 ezkil" (2016, Elkar) eleberri beltzaren moldaketarekin. Film Zinemaldian aurkeztuko du Zuzendari Berriak atalean eta TCM Gazteriaren sarietarako lehiatuko da mundu osoko zinemagileekin. Iruñeko Golem zinema-tokietako langilea da.

Nik ez dut profesionalizatzeko grina.

**Askatasun gehiago duzu horrela?**
Hori ere erlatiboa da. Diruak garrantzia handia du proiektuak aurrera eramateko. Gauzak ez dira txuriak edo beltzak eta dirua jartzerakoan bakoitza bere interesekin heldu da. Horrekin ere ez naiz batere baikor.

**Zuk, gutxienez, baduzu zinemarekin lotutako lanbide bat...**
Bai. 16 bat urte baditut hemen lanean eta esan dezaket Golemetan hazia naizela.

Zinea beti krisian bizi izan da eta denbora guztian gaude Demoklesen ezpataren azpian. Oso une latzak bizi izan ditugu hemen: 2011-2013 tarte horretako krisia oso latza izan zen. Orain ere osasun egoera dela eta bolada berezian gaude. Ez dakigu zer gertatuko den.

**Koronabirusa dela eta zinemara etortzeko beldur da jendea?**
Ez dut ulertzen zer gertatzen den. Jendea etxetik mugiaraztea kosta egiten da gauza batzuetarako eta besteetarako, aldiz, oso beldur gutxi dago. Begira bestela tabernak nola dauden edota

murrizketak jartzen dituztenean nola jende guztia kexaka hasten den.

Egoera orain oso arraroa da. Hilabete hauetan ohitu egin gara etxean pantailaren aurrean egotera, baina nik aldarrikatu nahi dut zinema aretoa dela pelikulak ikusteko tokirik egokiena. Neure filmak egiterakoan pantaila handia dut buruan. Irudia funtsezkoa da eta hori da ardatza. Aretoan dauden baldintzak etxean lortzea oso zaila da. Eta, bestalde, ez da ahaztu behar zinema-tokia tenplu moduko bat dela eta hara joatea ekintza sozial bat.

**Murgiltze esperientzia kolektibo bat, esan daiteke?**

Bai, hala da. Hala ere, orokorrean asko aldatzen ari dira ohiturak. Espainiako Estatuan kultura ez da sustatzen, begira bestela zenbat hezkuntza eredu desberdin izan diren urte gutxian. Frantzian, adibidez, joera oso desberdina da. Kultura eta zinema estatu kontuak dira eta blindatuta daude. Hemen beti harriak elkarri botatzeko, arma politiko gisa hartu izan da. Eta lastima da.

**Zinemarekin gertatzen ari dena kulturarekin oro har gertatzen ari dela esanen zenuke?**

Bai. Eta gainera, oro har belaunaldi arrakala handia sumatzen da. Gaur egun ikasleek irakurri beharreko literatur lanak ez dira guk gure garaian irakurri genituenak, adibidez, eta askotan lan horien bertsio egokituak ere eskaintzen zaizkie. Hori gehiegi da! Baina arazoa heldu den lekutik heldu da. Etorkizunerako auto-genozidio bat da. Artearen mundua gauza exotikoa edo frikia bilakatzera doa gero eta gehiago.

Artean aritzeak ez luke arraroa izan behar, baina hala da. Oso zaila da ikuspuntu hori aldatzea estatu honetan. Gaur egun kimera bat. Honen oinarrian arazo politikoa dago. Trantsiziotik hona sokatira bat izan da, talka bat. Espainian kohesiorik ez dago eta ezinezkoa da kohesiorik lortzea kulturari dagokionez. Eta hemen Euskal Herrian ere oso zaila da, dena kutsatua dagoelako. Gainbehera baten kronika da.

Baina nik uste dut joera dela gero eta irizpide gutxiago izatea. Esaten dute interneten dagoela dena, baina hor heziketa lan sakona behar da informazioa interpretatu eta kanalizatzen ikasteko. Gizarte heldu batean hori beharko litzateke, baina interesak beste puntu batean daude. Gauzak aldatzea posible da, baina badakigu interesak non dauden.

***Hil kampaiak* kulturan ere jotzen ari dira?**

Izenburu hori titular bihurtzen bada, kontuz!

**Garizmendi baserrian hezur batzuk agertu dira. Hori da *Hil kanpaiak*, zure film berriaren abiapuntua.**

Genero beltzeko istorioetan klixe bat izaten da abiapuntua eta [Alfred] Hitchcockek zioen bezala hobe da klixe batetik abiatzea, klixe batera iristea baino.

Niri suspentse mundua asko gustatu izan zait betidanik. Filmea hortik abiatzen da, baina suspentsean murgildu eta tragediarantz doan pelikula dela esango nuke. Elementu ugari dugu, eta generoa ere porotsua bihurtzen da hemen. Nik uste dut abiapuntu bezala pizgarri horrek balio digula iraganeko zauri zaharrak berriz ere irekitzeko eta iraganeko ezbeharren galeria erakusteko.

Hau mendeku hotz baten istorioa dela esan genezake, baina bestela kontatua. Pertsonaiekiko distantziamendua nahi dugu eta dokumental baten nolabaiteko estiloa eman nahi izan diogu. Erantzunak eman baino, nahiago dugu galderak probokatu.

> ***Gazteak ez dira joaten zinemara, zinema bera gainditzen duten elementuengatik ez bada: protagonista ezagun bat, abeslari bat… horiek dira erakartzeko ahalmena dutenak, ez filma bera. Zer gertatuko den jakitea oso zaila da”***

**Zer garrantzia dute begiradek?**

Begiraden pelikula bat da. Begiraden munduaz mintzo da edo, hobeki esanda, begiradek ezkutatzen dutenaz: absentziak, iraganeko zauri zaharrak… Oso garrantzitsua da Karmen, Itziar Ituñoren pertsonaia. Bera da zurtoina. Bere begietan erakusten du nola min hori hazten doan. Oso emakume gogorra da.

**Eta denborak?**

Hasieran eleberri honetatik arreta gehien deitu ziguna narrazioaren egitura izan zen, oso atipikoa, eliptikoa eta oso zatikatua, eta berehala ikusi genuen egitura horrek kualitate asko zituela ikuspuntu zinematografikotik begiratuta. Niri asko interesatzen zait elipsia zineman. Guk gure bidera eraman dugu kontakizuna, baina bazituen eduki oso interesgarriak, elementu makabroak, esate baterako. Hortik aurrera beste egitura bat eman diogu, azken finean formalki beste lengoaia bat delako, baina orainaren eta iraganaren arteko elkarrizketa bat egiten saiatu gara. Horretarako oso garrantzitsua izan da denboraren aztarnak ongi ematea. Irudi bera eskaintzen da denbora desberdi-

## *HIL KANPAIAK*: IRAGANEKO ZAURIAK BASERRIKO GIRO HOTZEAN

“Karmen (Itziar Ituño) gaztea zenetik asko sufritu duen emakumea da eta sufritzen jarraitzen du. Bere bizitza ez da batere erraza izan.

Nestor (Eneko Sagardoy) da Karmen eta Ferminen semea. Nestorren tragedia handia izan da gaztetan bere anaia bikia galdu zuela; hil egin zuten, eta zauri horrekin hazi da.

Euskal Herriko edozein leku izan daiteke istorioaren kokalekua: euskal munduan, inguru zabal batean girotuta dago, non nukleo handi bat dagoen, eta baserri mundua inguruan. Espazio horiek mantentzen saiatu gara. Ikusleak irudi orokor bat ez izatea interesatzen zait, baizik eta nork bere ikuspuntuarekin bateratzea eta, istorioaren egiturarekin batera, espazioaren ideia bat egitea. Kuriosoa izango da ikustea jendeak nola hartzen duen hori”.

netan eta errima bisualen bitartez denbora tarte horretan zer gertatu den, zer aldatu den pentsatzera eramaten dugu ikuslea.

**Zure filmen irudiek margolanak iduri lezakete...**

Ni artearen mundutik heldu naiz, argi dago, baina ez naiz hitz eta lotura ponpoxoak, topikoak erabiltzearen zalea. Zure *background*-a edo atzean duzuna azaleratzen da goiz ala berandu. Nire ustez irudiak ez ezik soinua ere funtsezkoa da. Are gehiago, soinua garrantzitsuagoa dela esango nuke. Irudi bat beti estimulatzaileagoa izango da berarekin doan soinuarengatik. Irudi eta soinuen elkarrizketa bat da pelikula. Elkarren osagarri.

Bestaldetik, irudiek indar handia dute ezkutatzen dutenarengatik. Azkenean zinema elipsia da. Bi irudiren arteko tarte horretan dago indarra. Hor sortzen dira ikus-entzunezkoan indarra eta magia. Zinema mutua zenean irudia zen etengabeko hartu-eman bat. Gero soinua iritsi zenean, kasu askotan modu desegokian hasi ziren erabiltzen, batik bat antzerkiaren eraginarengatik. Testua nagusitzen zen irudia bigarren planoan utzita. Oso pelikula berritsuak ziren. Filme honekin zinemaren funtsetara itzultzen saiatu naiz. Irudietara itzuli eta testu gutxiagorekin gehiago kontatu.

Nik uste dut garrantzitsua dela elementu bisual bereziak, ez ohikoak, erabiltzea, egunero ikusten duguna, berez, oso monotonoa delako.

> ***“Film honekin zinemaren funtsetara itzultzen saiatu naiz. Irudietara itzuli eta testu gutxiagorekin gehiago kontatu”***

**Zergatik daude zure bi filmak literatur lanetan oinarrituta?**

Lehenaren kasuan ni oso gaztea nintzen. 22 urte nituen Bernardo Atxagarengana joan nintzenean *Bi anai* liburuaren zinemarako moldaketa egin nahi nuela esanez, betidanik oso gertukoa izan dudalako. Haur garaian Gasteizen bizi ginen, haren aldemenean hain zuzen ere. Gainera 80ko hamarkada hartan bere liburuak ziren irakurtzen genituenak. Hori izan zen nire lehen filmaren abiapuntua, nobela bera baino.

Kasu honetan desberdina da. Interesgarria iruditu zitzaigun liburuaren egitura berezia. Nahiz eta gero aldatuko genuen, zatiketa handia zegoen eta horrek mikrokosmos oso interesgarria erakusten zuen. Honez gain, bazuen iruditeria makabro oso interesgarria. Joxe Portela produktorearekin ari nintzen beste egitasmo batean lanean, Joanes Urkixo gidoilariak liburu hau irakurtzea gomendatu zigunean eta hiruon artean sortu zen film hau egiteko ideia.

**Eta euskaraz, noski.**

Bai, ezinbestean. Eta Arbizuko hizkeraren eragin handia izan du gainera. Oso pozik nago. Gainera Yon Gonzalezen lehen euskarazko lana da eta oso ongi dago. ●

# Bidegurutzetik

**IRATI LABAIEN EGIGUREN**
EHU-KO IRAKASLEA

Makina bat aldiz galdetuko zidaten dagoeneko ea zergatik idazten ote dudan euskaraz. Sektore akademikotik etorri ohi zait galdera. Izan ere, gure ikerketa alorrak badu eredu linguistikoa: jakintza ingelesez transmititzen da, gutxienera ere gaztelaniaz edo frantsesez. Ez nuke zalantzan jarri nahi ikerketen emaitzen nazioartekotzeak duen garrantzia, izan bailezake maila globalean gizabanakoen garapena sustatzeko lankidetza helbururik. Baina norberaren hizkuntzan aritzeak dakarren plazeraz gain, ikerketak tokiko errealitatera gerturatzeko beharra ere ikusten dut, txikitasuna ere bai baita globalitatearen parte eta jakintzaren sorburu.

Globalizazioa kontzeptu zabal bezain konplexua da, eta oraindik ere, bere definizio, sorrera edota originaltasunaren inguruan askotariko ikuspuntuak aurki daitezke. Gaia jorratzean, ekonomiaren mundializazioaz jardun ohi gara, ekonomia desberdinen artean dagoen interdependentziaz alegia. Nolabaiteko adostasuna dago prozesu honek sortu dituen arazoak aipatzerakoan: migrazioak, finantza sistemaren deskontrola, giza eskubideen urratzea, desparekotasunak, ingurumenaren narriadura... Maila globalean ematen diren aldaketak ulertzea ia ezinezkoa da jendartearentzat, eta mesfidantza eta kontrolaezinak diren egoerei beldurra ere sortu izan ditu maiz. Arriskuaren gizartea modura definitu zuen fenomeno hau Ulrich Beck soziologo eta irakasleak.

Norberaren hizkuntzan aritzeak dakarren plazeraz gain, ikerketak tokiko errealitatera gerturatzeko beharra ere ikusten dut, txikitasuna ere bai baita globalitatearen parte eta jakintzaren sorburu

Paradoxikoa badirudi ere, arazo globalek ez dute oraindik erantzun eginkor globalik izan, eta bizi dugun estatuarteko sisteman oinarritutako kudeaketa ereduak ere, irtenbide eraginkorrak proposatzeko gabeziak erakutsi ditu. Hala ere, iritsezinak eta kaotikoak diruditen jazoera global hauek espazio fisiko konkretuetan gertatzen dira, hau da, jardunbide globalok tokiko espazioekin uztartzen dira bertako eragileek izan dezaketen garrantzia aitortuz. Hain justu ere mundu mailako tokiko hamaika espaziotatik erresistentziak plazaratu izan dira globalizazioaren jokamoldeen aurrean. Aldarrikapen hauetariko gehienak ikuspuntu ekonomikotik egindako proposamenak izan dira, hots, kapitalismo globalean lehiakorrak izateko espazio potentzialak eraikitzeko helburua izan dute. Hauekin batera izan da bestelako proposamenik ere: globalizazioko prozesu ekonomiko eta sozialek ekarri duten kultura homogeneizatzailearen aurrean aniztasun kulturalaren espresio gisa aurkeztu direnak, esaterako.

Euskal Herrian denetariko aldarrikapenak izan ditugu, bai lehiakortasun ekonomikoa oinarri izan dutenak, eta baita sorkuntza kulturala ardatz izan dutenak ere. Azken hauen artean, musika sorkuntza, bertsolaritza, auzoetako boluntario taldeak, dantza-taldeak, garapenerako lankidetza proiektuak, euskalgintza bera... Hainbatetan, eredu globalizatzaileak merkaturatu eta deshumanizatu nahi izan dituen baloreetara hurbiltzeko nahia izan dute.

Udako geldialdian *Euskararen bidegurutzetik* liburua irakurtzeko parada izan dut. Besteak beste, Kike Amonarrizek euskararen normalizaziora bidea egiteko gakoak biltzen ditu zehazkiro. Euskararen komunitatearentzat erreferentziazko lana izateaz gain, eremu zabalagoetara hedatu daitezkeen proposamenak plazaratzen dituela uste dut, egun bizi dugun ziurgabetasun eta beldurrak eragindako paralisi egoera honi argitasuna eman bailiezaiokete. Gizartearen aktibazioa, herrigintza, saretzea edota lankidetza bezalako baloreak azpimarratu nahiko nituzke irakurketatik, zinez uste baitut hausnarketa espazioak ez ezik, eginez ekingo diogula ezinari. *Ez dadila haria eten.* ●

# Iraganaren argia

PAULA ESTÉVEZ

**KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE**
LITERATUR ZALEA

Azken hamarkadetan zenbait izpiritu argik sail sozial eta ekonomikoetan aitzin-ikusi errakuntza, okerkeria eta lanjerrak herrialde aberatsetako biztanle guzien bistara agertu dira 2020 urte honetan, osasun krisiarekin batean. Mundializazioak neurriz goitiko merkataritza harremanak eragiten ditu, eta harreman horiek zuzentasunezko normatzat inposatu; indibidualismoak eta propietarismoak menderatu dituzte jendetasunezko eta elkartasunezko loturak; arrazionalismo hotza hedatu da arlo guzietan, sentimenduak, sentsualitatea eta irudimena zenbaki, estatistika ala eritasun bihurtuz. Errealitate birtual, zapaltzaile eta ero batean bizi gara.

Testuinguru horretan, hara ikasturte berria hasten dela, eta gogorki. Mundu edo Estatu mailako ibilmolde eta erabakiengatik, borroka dorpeak abiatuko dira. Gatazka geopolitiko larriek segitzen dute erresuma frankotan, eta berriak ere laster-laster sor daitezke. Irakaskuntzaren alorrean, gobernarien mespretxu, larderiakeria, gezur eta probokazioei aurre egin beharko zaie, gai guzietan: lan baldintza gero eta jasangaitzagoei begira, eraginkortasunik gabeko irakaskuntza metodoei eta eginbehar absurdo guziei begira, abertzaletasun frantsesa ikastetxeetan bortxaz sustatu nahi duen politika agresiboari begira (oroit Iparraldeko ikastetxe publikoetan Marseillaisearen errepika eta koplek afitxatuak behar dutela gela guzietan, haurren bistan, bai eta bandera frantsesa ere... aipatu gabe Anne Bisagni-Faure Bordeleko akademiako errektorearen deliberoa, hain zuzen murgiltze eredua debekatzen duela oraindik goiti ama-eskola publiko eta pribatuetan). Osasunaren arloan, berriz, hobekuntzarik ez da ikusi lan baldintzetan eta ahalbide materialetan, agintariek alta anitz hitzeman zutelarik izurriaren bigarren uhina saihesteko. Frantzian, kulturaren saila lagundua izanen da "aktibitate ekonomikoa" den heinean eta laborantzan, debekatuak ziren pestizida batzuk berriz baimenduko dira. Denetan, prekaritatea azkartuko eta hedatuko da eta etsipena muinetaraino sartuko.

Alabaina, tokian tokiko esperantzak sustatuko direla sinesten dut. Mundializazioak eta Estatuek herri eta herritarrei uzten diguten libertateaz baliatuko gara etorkizun hurbil eta ertaina hobetzeko. Elkarteei, bertako erakunde eta hedabideei esker, eta asmamen apur batekin, formakuntzak eta informazioak eskuratzen ahalko ditugu, gazteria babestu eta modu duinean loratzen lagundu; gure altxor material eta immaterialak zaintzen ahalko ditugu; geroari begira, hemengo gizakiarentzat eta naturarentzat hoberena zer den definitzen ahalko dugu.

Azken puntu hori, uztail-agorrilean gurutzatu dudan jendeak arrunt argi zuen. Lehenik, baketsuki baina fermuki iharduki behar zaiela goragotik eratorri erasoei. Bigarrenik, gureganatu behar dugula gazte hezkuntzaren eta osasun zaintzaren ardura, tokian tokiko behatokiak eta bultzadak akuilatuz. Hirugarrenik, guhaurk kudeatu behar dugula gure lurraldea biziarazten duen ekonomia. Laugarrenik, gure kultura ezagutu behar dugula, eta guretzat lehenik behar diogula eman balioa.

Ez dira gogoeta berriak, baina iruditzen zait behar horiek premiatsuak bihurtu direla azken hilabeteetan, preseski mundializazioaren ibilmoldea geldotu delako, eta errealitate birtuala utzita, jende eta naturaren errealitatera doi bat pasatu garelako. 2020. urteko azken lau hilabeteak emankor eta itxaropentsu izan dakizkigun, kuraia, kemen eta irudimen denoi! ●

# Zabortegiaren herri kontsulta

**AHOZTAR ZELAIETA**
KAZETARIA

Espainiako Gobernuak baimena eman zion Zaldibarreko alkateari 1998. urtean zabortegiari buruzko herri kontsulta burutzeko. Herri Batasunaren proposamena Grupo Independientek eta EAJko zinegotzi batek, Eitzaga auzokoa hain zuzen, proposamenaren alde emandako botoei esker aurrera atera zen. Hala ere, udaletxeak ez zuen aukera hori gauzatu. Orain hiru urte, orduko alkate ohiak Gure Esku Dagoren kontsultan parte hartzeko gonbitea luzatu zien herritarrei.

2003. urtean, EAJko beste alkate batek herriko arau subsidiarioak aldatu zituen zabortegiaren proiektuari bultzada emateko. Jaurlaritzako Ingurumen Sailak proiektua onartzeko behar zuen udal plangintzarekiko bateragarritasunak udaletxearen arkitektoaren oniritzia zuen, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria izandakoaren semea berau. Alkatea bera, kargua utzi ondoren, arkitektoaren enpresa bateko ordezkaria bihurtu zen. 2011. urtean, Bildu alkatetzara heldu baino bi aste lehenago, zabortegiari jarduera -baimena eman zioten.

Zabortegiko ingeniariaren osaba, EAJko diputatu ohia, gaur egun Indumetaleko lehendakaritzan dago. Indumetal ikerketapean dago egun, birziklapenean burututako irregulartasunak medio. Ingeniariaren aita Luzaroko lehendakaria izan zen, Jaurlaritzak parte-hartzea duen erakunde honek zabortegiari eta Indumetali makina euro mailegatu dizkie.

Kakatza honetan PSEk ere badu bere txokoa. Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak, Eibarreko alkate ohia zela, zabortegiaren arduraduna ezagutu zuen, eta haren hainbat enpresa udaletxeak bultzatu edo onartutako zenbait proiektutan murgildu ziren, horietako batzuk nahiko eztabaidatsuak. Alkate zenaren idazkariak zabortegiaren ordezkari lanak ere egiten zituen.

URA Agentziako zuzendaria zabortegiaren arduradunen enpresa baten lehendakaria da, eta SPRIko zuzendari orde ohi batek zabortegiko akziodunekin harreman sozietarioak izan ditu. Zabortegiko ordezkari ohi batek eta zabortegiko kudeatzaileak sortutako enpresa baten lehendakaria izan zena Gipuzkoako Ingurumen zuzendaria da orain.

Zirkuluaren koadratura bukatzeko, Gipuzkoako Ingurumen zuzendariaren anaia, enpresa pribatu bateko ingurumen saileko zuzendari ohia, Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren zuzendaria da. Enpresa horren sortzailea beste enpresa bateko lehendakariordea izan zen. Azken honetan Zaldibarreko alkate ohia ordezkari izendatu zuten eta udaletxeko arkitekto ohia lehendakaritzan zegoen.

Euskal oasiaren ate birakariak komuneko ur-zurrusta kulunkarien gisakoak dira, mataza horren haritik tiraka jarraituko dugu. ●

# Distiraz

**ITXARO BORDA**
IDAZLEA

Hainbeste egun eta gau pasatuko ditugu konfinaturik, oraindik ere bai, pantailaren aitzinean baliogabeko orrialdeak miazkatzen, lur gaizo hau diruaz zipriztintzen duten izarren automobilak zein diren eta zenbat balio duten agertzen dizkigutenak adibidez: Celine Dion, Zidane, Rihana eta Beyoncerenek gure etxearen zazpi adina balio dute dolarretan. Guzti hori, hirietan, orduko 50 edo 30 kilometrotan ibiltzeko! Bazauzu?

Aburu zenbaiten arabera munduan zehar dirua eskas liteke jendearen ongizate orokorra bermatzeko. Pobreak, egiazko putzuak dira, sos meta eroa irensten dute, benefizio net izpirik gabe. Irri egitekoa baliteke, ez balitz negargarria. Bizkitartean aberatsenen irudiekin ausatzen gaituzte, palazioak, luxuzko ontziak edo beribilak erakutsiz. Handiki neoliberalek pentsatzen dute kontsumoa eta ekoizpena, hots bizitza, segurtatzea, herritar arruntengan frustrazioa atitxatuz. Funtzionatzen duela ezin uka.

Badabil dirua, ausarki, kirolari eta artista andanen Ferrari eta Mercedes distiratsuak zehazten ditugunean, baina ez da egokiro isurtzen piramidean behera: arazoa horretan datza.

Milton Friedmanen sinestea ustela zen. ●

# Goizeko bederatziak eta hamabi

**PAULINE GUELLE**
ZUZENBIDE PUBLIKOAN
DOKTOREGAI ETA IRAKASLEA

Goizeko 09:12 Arrosako geltokian. Agorrilean gara, autoa panan eta euria ari du. Han eta hemen kuskuekin zebiltzan hiru beilari. Ikasle bat amatxiren etxera abiatzen zena. Bi bizikletadun.

Lantokira zoanak deserosotasun samarra sentitu zuen Arrosan trena harrapatzean. Jendez emokatua zen bagoia bere muturraren aitzinean gelditzean ezinegona baieztatu zion. Leku bat xekatuko zuen azkarki. Gainera, koronabirusaren aurkako babes neurriak segitzekotan, toki bat biren gain baizik ez ziren baliatzen ahal. Ezinezkoa iruditu zitzaion langileari. 45 minutuko bidea bazuen Baionako lantokira, zutik egon behar ote zen? Zulo ttipi batean kokatuko zen, sagua bezala. Inguruan, Quechuaz jantzitako behin-behineko edo ohiturazko bide eta mendizaleak hamarnaka. Batez ere, Donibane-Garazitik Kanboko ur onetara zihoazen burges taldetxoak –berberak atzemanen zituen kontrako bidea eginen zuelarik; ur onetan zitezkeen aste baterako eta "itzuliño bat Donibane-Garazin" egiteko aukera ukanik, arratsalde batez hartu zuten trena–.

> Sos egiteko sugeak Baionatik Donibane-Garazira garamatza. Hemengo langile eta ikasleei tenore eta prezio desegokiak proposatuz, betetzen ote du bere funtzioa? Turista masa eramateko tresna bilakatu da tren ttipia

Langileari, aste honetan baizik ez zaio tokatu lantegira trenez joatea. Nahiz eta Ortzaizen bizi den, autoa du ohizko ibilgailu. Treneko ordutegia desegokia iruditzen zaio: goizeko 06:40etan hartzea ez zaio komeni, lanean ez du goizegi iritsi nahi ateak hetsirik atzemateko; aldiz, 09:12etan Arrosatik abiatuz Baionan berantegi erakutsiko zion nagusiari bere aurpegia.

Garraio publikoa izan ezik, turistak baizik ez ditu karreatzen 'Limousin' eskualdetik etortzen zaigun karkasak. Baionatik Donibane-Garazira edota Donibanetik Kanbora. Hau dena beilariendako da aproposa. Baionara iristen diren erromesek, zuzenki Donibane-Garazira jotzen dute beren zaku maskordun alimalekoekin. Egiazko bidaia. Beldar elektriko hura hartuko dutenek "bista xoragarria" gozatuko dute trenetik. "Domaia da oraiko pintadek bista kukutzen baitute!", "Pintadak espres eginak dira?", galdegingo zioten ondoko autoktonoari lekuz alda zedin eskatuz –"ur xirripa hobeki ikusteko zeren gure aldean arroka baizik ez da"– argudiatuz.

Sos egiteko sugeak Baionatik Donibane-Garazira garamatza. Hemengo langile eta ikasleei tenore eta prezio desegokiak proposatuz, betetzen ote du bere funtzioa? Turista masa eramateko tresna bilakatu da tren ttipia, eta hau da Frantziar estatuak barnetik erailtzen duen sektore publikoa. Euskal Herria enkantean salduz eta garraio publikoa desbideratuz. Herritarrentzat behar gabeko bilakatuz, pribatizatzeko parada errazagoa emanen dio tren konpainiari, hain segur; non ez den mendi eta folklorekeria saltzeko tresna bihurtu. ●

# EUSKARA IKASTEKO ZURE FORMULA

Krisi honetan, inoiz baino errazago jarriko dizugu.
Etorri, erabaki gehien komeni zaizun formatua, eta elkarrekin aurkituko dugu euskara ikasteko zure formula.

MATRIKULA IREKIA EUSKALTEGIETAN

HABE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Azken urtean, Santurtzin ere azaleratu da okupen aurkako herritarren bulkada. Argazkia urrikoa da, eta hainbat lagun etxebizitza baten aurrean ageri dira, bertako bizilagunak kanporatzea xede.

# OKUPAZIOAREN KRIMINALIZAZIOAK GOGOR JO DU EZKERRALDEA

Azken hilabeteetan okupazioaren aurkako bonbardaketa mediatikoan ari dira Espainiako Estatuko hainbat hedabide, eta Hego Euskal Herria ez dago berorren eraginetik salbu. Gurean iazko urritik eta Portugaleten jazotako gertakizunen harira ari da gorpuzten okupazioaren aurkako kanpaina, eta hainbat hedabide Portugalete "okupen aurkako gotorleku" gisa aurkeztera iritsi dira.
Baina zenbat du egiazkotik diskurtso horrek? Zer ezkutatzen da kontakizun horren gibelean?

ANDREA BARTOLO  JAVIER ZORRILLA / EFE

Urte zaila izan da igarotakoa Portugaleten okupazio mugimenduarentzako. Ezkerraldean munta mediatiko eta politiko handia izatera iritsi dira 2019ko urrian eta 2020ko ekainean Portugaleteko Errepelega auzoan jazotako "desalojo herrikoiak". Urrian, Victoria de Castroren kasuak herritarren haserrea eztandarazi zuen. Auzoko bizilaguna den adineko emakumea bere ahizparen etxera joan zen egun batzuk igarotzera, eta kanpoan zela indarrez sartu zitzaizkion etxean zenbait pertsona. Gertakizunen aurrean Errepelegako bizilagunak antolatu eta presio herrikoi handia egin zuten, bizilagunaren etxea berreskuratzea lortu arte. Herritarren artean eztandarazitako haserrearen ondorioz, okupatuta zeuden beste bi etxebizitza ere hustu zituzten herrian.

2020ko ekainean antzerako gertakizunak errepikatu ziren Errepelegan bertan: "Okupa" batek auzoko emakume bati lapurreta egin ziola zioen zurrumurrua hedatu zen, eta testuinguru horretan, ustezko lapurrak okupatutako etxebizitzaren parean 50 pertsona baino gehiago bildu ziren. Bizilagun okupei oihuka eta mehatxuka, eta Ertzaintzaren esku-hartzea medio, mobilizatutako herritarrek okupek etxetik alde egitea eragin zuten. Biharamunean, gauez, 100 pertsona baino gehiagok beste hitzordu bat egin zuten herriko beste etxebizitza baten parean. Hemen ere, Ertzaintza lagun, beste familia bat etxetik kanporatu zuten.

Azken asteotan, okupazioaren aurkako polemika berpiztu da Portugaleten, uztaila hasieran okupatu zuten Sastraka Gaztetxeko sutearekin. Gaztetxeko kideek eta suhiltzaileek egindako lehen adierazpenen arabera, sutea nahita eragindakoa izan da.

## "OKUPAZIOAREN ARAZOA": ERAIKUNTZA MEDIATIKO ETA POLITIKOA

Urrian bezala, ekainean ere komunikabide handiek tarte zabala eskaini zieten aipatutako mobilizazioei, "okupazioaren arazoa" hauteskunde eztabaidaren erdigunean jarriz. Han eta hemen, titular sentsazionalistak irakur zitezkeen: "*Un barrio en guerra contra los okupas*" (Okupen kontrako gerran dagoen auzoa), zioen *El Correo*-k; "*Los vecinos de Repelega vuelven a unirse contra los okupas*" (Errepelegako auzokideak berriro batu dira okupen aurka), *Deia*-k; edota "*Nuevo motín vecinal contra los okupas en Portugalete*" (Okupen kontrako beste matxinada herrikoi bat Portugaleten), *El País*-ek. Kontakizun mediatikoak antagonismo honetatik abiatuz planteatu du gaia: Bizilagunak vs. okupak.

Bizilagunak eta okupak aurrez aurre jartzen dituen diskurtso mediatikoaren eraikuntza ez zen Errepelegako kasura mugatu; epe motzean Bilboko Errekalde auzoan zein Gasteizen, gauza bera egiten saiatu ziren hedabideak. Gasteizko Etxebizitza Sindikatuak salatu zuenez, EITB -tik Herrandarren Kaleko eraikinaren okupazioari buruzko erreportajea egitea proposatu zieten –uztailaren hasieran Sindikatuak birjabetutako etxebizitza blokea, non aterpe beharrean zeuden

Hainbat bizilagun desalojo herrikoia egiteko bildurik Errepelega auzoan, ekainean (Argazkia: Tele7)

ECUADOR ETXEA

Portugaleteko Sastraka gaztetxeko sutearen aurrean egindako manifestazioa.

30 pertsona inguru bizi diren–, baina azkenean telebista publikoak ez emititzea erabaki zuen "ikuspegia ez zelako egokia". "Zein da bilatzen zuten ikuspegia?", galdetu zuen Etxebizitza Sindikatuak, ondokoa gehituz: "Erreportajea egiteko etxejabeekin, bizilagunekin, Sindikatuarekin eta Udalarekin hitz egin zuten eta guztioi berdina galdetu ziguten, ea hemen ere Portugaleten edo Errekalden jazotakoa gertatuko zela uste genuen. Hau da, bizilagunen eta okupen arteko balizko liskar batean interesatuta zeuden". Azkenean, "EITB-k eta beste irrati batzuek gure ekarpenak ezabatu zituzten edo ez zuten gaiari buruz ezer emititu", salatu zuen Sindikatuak.

Ez dira soilik komunikabideak termino horietan hitz egin dutenak. Erakundeetako indar politiko nagusiek ere okupazioa arazotzat hartu eta "bizilagun vs. okupa" antagonismoa elikatu dute. Mikel Torres Portugaleteko alkatea (PSOE) "harro" agertu zen auzotarren erantzunarekin Tele7 kateari eskainitako elkarrizketa batean: "Ezin da onartu jendeak etxebizitzak legez kanpo okupatzea; izan ere, horrek ezegonkortasun sentimendua sortzen du auzoan". Modu berean mintzatu zen Txema Ezkerra (EAJ) Portugaleteko alkateordea, bere atsekabea agertuz "legeak guztiz bermatzaileak direlako etxebizitza bat usurpatzen dutenekin, eta ez hainbeste pisu bat jabetzan dutenekin". "Okupazio kasuen aurrean herritarrek azkarrago jokatzea eskatzen dute eta lege aldaketak egin behar dira erantzuna azkarra izan dadin", adierazi zion Ezkerrak *Deia* egunkariari.

Kontakizun politiko horiek arazoaren ikuspegi berbera adieraztera datoz. 1.500 etxe huts baino gehiago dituen herri batean, etxebizitzaren premiari erantzuteko okupatzea –hau da, "etxebizitzaren arazoaren" ondorio dena–, arazoaren beraren zergatia bihurtu da. Ildo horretan, bitxia da EAJk egiten duen kontakizuna: etxebizitza eskubidea erabat murrizten duten lege aldaketak aldarrikatzen ditu, nahiz eta aldaketa horiek dagoeneko gauzatuak izan diren 2015eko Zigor Kodearen erreformarekin eta 2018ko Prozedura Zibilaren Legearen aldaketarekin. Aldaketok EAJri berari zein PDeCAT, C's eta PP alderdiei esker egin ziren, etxeak okupatzen dituztenentzako zigorrak gogortuz eta kaleratze prozesuak bizkortuz, "kaleratze express" direlakoekin. Agian EAJ benetan kezkatzen duena da bankuak, higiezinen-agentzia handiak eta funts putreak neurri horietaz ezin gehiago baliatzea. Beharbada horiek dira sustatu nahi dituzten lege aldaketak, PP, C's eta VOX alderdiekin batera.

Beste behin ere, askoren eskubideen izenean, gutxirentzako pribilegioak eskatzen dira; bizikidetzaren izenean, errepresio eta zigor aparatua indartzea proposatzen da; eta, gure askatasunaren izenean, are gehiago lotzen gaituzte menderatze kapitalistaren kateetara.

## HERRI MUGIMENDUA, KRIMINALIZAZIOARI ERANTZUTEN

Herri mugimenduko hainbat sektorek salatu dutenez, Errepelegako kasua hedabideek beren neurrira sortutako arazoa da, mugimendu oso bat kriminalizatzeko helburua duena. Testu baten bitartez Errepelegako bizilagun talde batek adierazi zuen moduan, "usurpazio arazoa" izan dena –Victoria de Castroren kasuari erreferentzia eginez–, okupazio arazo gisa saldu nahi izan dute. Kanpaina politiko eta mediatiko horren aurrean, okupazioa aldarrikatu dute, "emantzipatzeko" eta "prekarietatearen aurka borrokatzeko" tresna gisa: "Errepelegan eta Portugaleten prekarietateak

MARCOS
okindegia
Benetako
antzinako ogia
✆ 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA

EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI
info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

eta etxebizitza faltak gora egiten dute egunetik egunera, milaka etxe huts dauden bitartean (...) Etxebizitza oinarrizko beharra eta eskubidea da". Okupazioa herri mugimendu gisa ulertzen dutela diote, "milaka pertsonek etxebizitza eskubidearen inguruan bizi duten egoera salatzeko" balio duena.

Portugaleteko herri mugimendutik besterik ere azpimarratu dute: hedabideek hauspotutako herritarren protesten oinarrian pultsio klasistak eta arrazistak daudela, eta horiek elikatzea arriskutsua dela. Tele7-n egindako hainbat elkarrizketatan, Errepelegako bizilagunek behin eta berriz errepikatu zuten ez zela okupazio edo arrazakeria arazoa, bizikidetza gatazka baizik.

Bilboko Okupazio Bulegoak, bere aldetik, alderdi politikoak eta komunikabideak egiten ari direna protesta horiek "instrumentalizatzea" dela salatu du. Helburua argia da, beren arabera: "Prekarizazio" eta "txirotze kolektibo" testuinguruan okupazioa kriminalizatzea, pobrezia kriminalizatzeko; eta, aldi berean, okupazioaren bidez ematen diren bizimolde desberdinak eta alternatiba komunitarioak ikusezin bihurtzea, horiek erasotuz. "Okupazioa erasotzen dutenean, txiroen kontraboterea kriminalizatzen ari dira higiezinen agentzia eta banketxe handien izenean, jabetza pribatuaren izenean", azpimarratu dute.

Okupazioaren aurkako kontakizun mediatiko eta politikoan diskurtso klasista zein arrazista nahasten direla ere seinalatu du Okupazio Bulegoak, koktel leherkorra osatuz: "Ezkerraldeako gertakariek gutxiengo etnikoetakoak, arrazializatutakoak edo migratzaileak diren kideak jarri dituzte afera publikoaren erdigunean". Hau da, pobrezia kriminalizatzeaz haratago, pobre mota bat kriminalizatzen dute, arrazializatua, "txiroen arteko gerra" hauspotuz. Hori hala, Ezkerraldeko bizilagunei dei egin die komunikabideen eta politikarien diskurtsoei entzungor egitera, eta afera klase borroka terminoetan planteatzera: hau da, amorrua arazo estrukturaletara eta miseriaren arduradun politiko-ekonomikoen kontra zuzentzera. "Desjabetuen arteko elkartasuna berreraiki dezagun eta zuzen dezagun gorrotoa gorantz, esplotatzaileen, espekulatzaileen eta haien jabetza pribatuaren kontra", ondorioztatu dute.

"Okupazio mugimenduan urteetan abandonatutako etxebizitza eta espazioak okupatzearen alde gaude (...) Jabetzaren logikari kolektibizazioaren logika kontrajartzen diogu. Hiri segurtasunaren ideiari komunitatearena kontrajartzen diogu. Okupatzea autonomiaren, kolektiboaren, eta auzoetako zein herrietako auzokideen arteko elkarbabesaren alde egitea da", aldarrikatu du Okupazio Bulegoak.

## ETORKIZUNEKO ERRONKAK

Oro har, saldu nahi duten Portugaleteren "okupen aurkako gotorleku" irudiak talka zuzena egiten du azken egunetan Sastraka Gaztetxeko suteari emandako herri erantzun jendetsuarekin: adin guztietako ehunka lagun mobilizatu dira, gazteei babesa eta elkartasuna helaraziz.

Bistan denez, "desalojo herrikoien" kasuan hainbat diskurtso daude mahai gainean: komunikabideek fokoa auzokideen eta okupen arteko ustezko gerran jartzen duten bitartean, bizilagunek eta herri mugimenduek okupazioa kriminalizatzeko komunikabideek egindako instrumentalizazioa salatzen dute. Interesgarria da Okupazio Bulegoaren azterketa, diskurtso politiko-mediatikoa salatzeaz gain, gatazka bera zeharkatzen duen arriskuaz ohartarazten baitu: herri-amorrua, kontzientea ez bada eta klase-ikuspegi batetik bideratuta ez badago, instrumentalizatua izan daiteke eta "txiroen arteko gerra" piztu dezake.

Ez dirudi kasualitatea denik okupazioaren kriminalizazio kanpaina krisi sistemikoa agerian den unean berpiztea: beste behin, higiezinen burbuilaren eta langile klasearen proletarizazio prozesuaren erdian, burgesiaren botere politiko eta mediatikoa interes espekulatiboen alde mobilizatzen ari da. Testuinguru horretan, okupazioari buruzko polemikak balio politiko izugarria hartzen du. Okupazio Bulegoko kideek begiztatzen dutenez, jokoan dagoena krisiak hartuko duen norabide politikoa da, amorru soziala nora bideratuko den: etxebizitzaren problematika okupazio arazo koiunturala ala espekulazio arazo estrukturala da? Norantza zuzenduko da herriaren auto-antolakuntza eta klase amorrua? Bankuen, higiezinen-agentzien, funts putreen eta abarren kontra? Edo bizirauteko etxe bat okupatu behar duten desjabetuengana? Gorantza ala beherantza? Etxebizitzaren arazoak "txiroen arteko gerra" hauspotuko du, ala klase borrokaren hazi bihurtuko da? ●

ZIORDIAKO AMARAUNA

# Elkarrekin bizitzeko proiektu bat, herri mugimenduen itzalean

XABIER LETONA BITERI DANI BLANCO

Armiarmak Euskal Herriaren erdigunean ehundu du amarauna, Sakana haraneko Ziordian (Nafarroa), Arakil ibaiaren ertzean, Eginoko haitzen magalean eta A-1 autobidearen alboan, Araba eta Nafarroa arteko mugan. XIX. mendearen hasieran habiak errotaz jantzi zuen bere burua, ehun lantegia ere izan zen, geroago karlistadetan ospitale eta XX. mendean Hermanas de Nuestra Señora de la Compasión ordena frantseseko mojen komentu. XXI. mendea Amarauna proiektuarena da.

Gaur egun zazpi pertsona heldu eta lau haur bizi dira bertan eta bizitza proiektu alternatiboa eraiki nahi dute: haietako bakoitzak berea eta denon artean Amarauna. Iturmendiko Jordi da hariak dantzan jarri dituenetakoa, Amaraunako beteranoa. 30 urte ditu eta 2015eko udan ekin zioten lau lagunek Sakanan pisu merkeen bila, okupatzeko, bizitzeko... Ziordiako komentuarekin egin zuten topo eta mojek berau uzteko asmoa zutenez, eraikin handiaren ondoan dagoen etxe txikian egin zituzten lehenbiziko urratsak: "Irailerako –dio Jordik– etxetxoan bizitzeko eta lurra erabiltzeko lagapen kontratu bat sinatu genuen mojekin. Han hasi zen Amarauna. Gero 2017an esparru osoa erabiltzen utzi ziguten eta 2018ko abenduan erosteko aukera eman".

Jordi, Izar eta sei urteko Alaitz elkarrekin bizi dira Amaraunan eta 2020ko otsailaren amaieran kazetari hau Ziordiara abiatu zenean Izar haurdun zegoen. Jordi pintorea da eta Izar irakaslea Lakuntzan. Gero koronabirusaren itxialdiak harrapatu gintuen denok eta amesgaiztoaren ondoren, udak ongi etorria eman zion ekainaren 20an mundu-ratutako Intzari.

Amaraunan bizi den Itsasok erakutsi zidan otsail amaieran komentua, aukerez gainezka hornitutako espazio erraldoia: logelak, sukalde oparoa, jantokia, biblioteka, gimnasioa, kapila, bilera gelak, sotoa... "Proiektu alternatibo bat eraikitzeko paradisua, mojen zerutik mirari gisa eroritakoa" pentsatu nuen orduan: 3.000 $m^2$-ko eraikina eta 30.000 $m^2$-ko espazioa lurra landu eta bakoitzak bere proiektuak elikatzeko. Finean, beste era batera bizitzeko.

Eta hori guztia 320.000 eurotan erosteko aukerarekin. Galdera ezinbestean erori zen mahaiaren gainera: "Baina pagotxa hori zergatik zuei?". Jordik ez daki azaltzen zergatik haiei, baina hasieratik oso harreman ona izan dute mojen komentuko nagusi eta Espainiako Estatuko ordezkari den Josefinarekin, eta hark beti aintzat hartu izan ditu aurkeztutako proiektuak.

> Bertan bizi direnek ere ez dute *euren etxe*a izango, zentzu klasikoan; etxeak kooperatibak banatuko ditu erabilerarako, beharren arabera

Erosketa prozesuak ekarri zien ika-mikarik ere taldean. Asko okupazioaren mundukoak izanik, erosketa zalantzan jarri zuen hainbatek, besteak beste elizako erakunde bati dirua ematea zekarrelako. Eztabaida prozesu haren ondoren, batzuek utzi egin zuten taldea, horien artean, 2015ean etxe bila abiatu zirenetako bik.

## MUNDU BERRIA NOLA?

Amarauneko proiektua ez da bertako bizilagunentzat bakarrik, proiektu zabala egiten ari dira, nahi duten herritarren artean eraiki eta gozatzeko. Bide horretan, 2017tik gaurdaino dozenaka herri mugimendu eta talde pasatu dira bertatik, ehunka lagun jardunaldiak eginez, topaketetan lanean edo aisialdian. Otsaileko egun argi eta hotzean infusio banarekin jarri gara sukaldean Itsaso eta biok: "Hau Euskal Herriaren erdigunean dago, oso posizio onean taldeak eta herritarrak toki zoragarri honetaz goza dezaten eta hori da guk nahi duguna, lanerako eta gozamenetako espazio duin eta eder bat eskaintzea. Ez daude halako asko eta merezi du baliatzea".

Azken hiru urteetan molde askotako bilkura eta topaketa egin dira bertan, haien webgunean (https://amarauna.eus/) ikus litekeen bezala: Joxemi Zumalabe Fundazioa, Madrilgo Tabarilea emakumeen batukada taldea, AHT Gelditu!, Landa okupazioaren aldeko topaketak, Reclaim the Fields, Maravillas gaztetxearen aldeko festa, Revolución Integral, Emaginak, Con Ojos de Mujer, Askapena, elikadura burujabetzakoak eta beste ugari.

Amarauna elkarteak bideratzen du hori guztia, funtsean aterpea eskaini eta jaten ematea, hala nahi duenarentzat. Lo egiteko hainbat eskaintza dira: logelan edo norberak bere lo-zakua eramanda. Bazkari ederra ere dasta liteke, dena bertako baratze ekologikotik jasotako produktuekin goxo-goxo prestatua. Kokagune ederraz gain, kalitate-salneu-

XABIER LETONA

> “Sormena ere bada –dio Carlosek–: batzuetan pentsatzen dut landatzen duzun guztiaren koadro bat dela baratzea; eta erresistentziarako espazioa, ez baikara asko hala bizi garenak”

rrian eskaintzen duten zerbitzu onak ere ematen du orain arte izan duten arrakastaren azalpena.

40 bat lagunek osatzen dute Amarauna elkartea, bakoitzak urtean 70 euroko kuota jartzen du, eta honek ematen die espazio guztiaz gozatzeko aukera. Partaide guztietatik hamar kidek osatzen dute talde motorra eta hauek ardura gehiago ere badituzte, horien artean daude datozen taldeen kudeaketa eta, espazioaren mantenuan eta garbiketan parte hartzea. Eraikina eta lurraren erosketa bideratzeko, ostera, Armiarma kooperatiba sortu dute, oraingoz lau kidez osatua: Izar, Jordi, Itsaso eta Carlos. Kooperatiba izango da eraikinaren eta lurraren jabe, eta hamabost bat pertsonez osatu nahiko lukete, beren kalkuluen arabera, kopuru hori ona izan daitekeelako espazio honetan elkarrekin bizitzeko eta, aldi berean, Amarauna proiektua aurrera ateratzeko. “Zelanbait irudikatzeko –diote haiek–, espazioaren laurdena bertan biziko direnentzat izango da eta beste hiru laurdenak kolektiboentzat. Bertan bizi direnek ere, ez dute *euren etxea* izango, zentzu klasikoan; etxeak kooperatibak banatuko ditu erabilerarako, beharren arabera”.

Hainbat zereginetarako erabiltzen da Amarauna. Beharrik handiena taldeen kudeaketa da, baina horrez gain, garagardoa ekoizten da, fruta batu eta marmelada egin, bi behor ere badira, behi gutxi batzuk, erleak ere lantzen ditu batek, asteazkenero biodantza egiten dute dozena bat lagunek... Bazkide bakoitzak bere proiektua gara dezake bertan.

Goxo sartzen da rooibos infusioa, etxe barruan ere fresko da eta Itsasok berogailua hurbiltzen du berriketara. 48 urteko emakumea da eta duela urtebete bizi da Amaraunan. Okupazioaren mundutik dator eta Ziordiara etorri aurretik, Nafarroako Erro bailarako Urnizan bizi izan zen bi urtez, Carlosekin batera; lehenago sei urtez bizi izan zen Lakaben (Nafarroa) eta... “pixka bat nekatuta ere banago, okupazioan egin eta desegin ari zara etengabe, adinean ere aurrera noa eta nonbaiten finkatu nahiko nuke nire burua; hau toki zoragarria da horretarako. Mundua aldatu nahi duen jende asko dator hona, eta horrek ere elikatzen nau”.

Leihotik ikusten dut Carlos baratzean, aitzurra eskuetan; harekin batera aritu izan da azken bost urteetan lurra lantzen. Carlos Madrilen jaioa da, baina ama Urdiainekoa (Nafarroa) du; Itsaso Bilboko Ibar Ezkerrean. Orain Itsasok badu beste proiektu bat buruan, gatazken eta emozioen kudeaketarekin zerikusirik duena, baina oraindik hastapenetan dago gehiago azaltzeko ere. Haize eta Martin, 12 eta 9 urteko seme-alabak bizi dira berarekin eta pozarren da, komentu ondoko etxetxora joango delako bizitzera haiekin. Carlos 16 urteko bere alaba Lunarekin bizi da komentuan eta, batez ere, bera arduratzen da baratzeaz Amaraunan. Lehenago Beizaman (Gipuzkoa) eta Lakaben ere bizi izan zen. Lunak Gasteizko Dantza Kontserbatorioan ikasten du.

Sukaldean dira lanean Manola eta Negro ere, hurrenez hurren 33 eta 38 urteko bizilagunak. Hilabete gutxi daramate Amaraunan eta bertan bizitzea zer den probatzen ari dira. Etxeko produktuekin bazkari ederra prestatu digute eta hamar bat lagunek bazkaldu dugu elkarrekin kontu kontari. Hilero bere diru ekarpena egin behar du hemen bizi nahi duenak eta erosketa prozesuan parte hartzeko, gutxienez urtebete bizi behar da bertan.

## ITXIALDIAN LIBRE

Otsaileko egun argi haren ondoren iritsi zen konfinamendu iluna, ARGIAko erredakziora zein Amaraunara. Hala geratu zen erreportaje hau ere, itxialdian. Denon bizitzak aldatu ziren, baina batzuena beste askorena baino gehiago: "Gu ez gara ia enteratu", diote irribarretsu Amaraunako bizilagunek abuztuko arratsalde euritsuan, paradisu txikira egindako bigarren itzulian. Ez da harritzekoa, hainbeste leku barruan, kanpoan, baratzea... itxialdian luxua izan den guztia izan dute bertan. Konfinamenduaren ondoren, esaten da hirietan jende askok erakutsi duela landa eremuarekiko interesa eta hemen ere sumatu dute joera hori: "Hainbat herritar jarri dira harremanetan bertakoekin Amarauneko proiektuaz jakin-minez".

Arratsaldeko euritik babesteko eraikinaren babesa bilatu dugu, solasa laguntzeko atera duten gazta, sagardoa eta garagardoa lagun. Inguruan dira Diversidad Funcional taldekoak joan etorrian, haien jardunaldiak prestatzen, eta ondorengo egunetan etorriko dira estatu osotik Revolución Integraleko 60 bat lagun. Gehiago etortzekoak ziren, baina koronabirusaren murrizketekin hemen ere mugak jarri behar izan dituzte.

Carlos patatak sailkatzen ari da, "patatak badu lana alde horretatik, noizean behin dena miatu eta ustela baztertu behar da, guztia usteltzea nahi ez baduzu. Baina tira, gero apirilera arte izango dugu patata". Izar eta Intza, Jordi, Marina, Itsaso eta seiok bildu gara biribilean kalaka.

Marinak Amaraunaren webgune berria prest dutela diosku eta iraileko lehen astean *crowfunding*-a ere prest izango dela. Marinak 24 urte ditu, Jordiren arreba da eta Axirekin bizi da Iruñean, bertan egiten baitute lan. Hori bai, biak sakandarrak izanik, asteburuetan beti jo izan dute herrira, eta orain herria Amarauna da. Proiektukideak dira eta itxialdia ere bertan pasatu dute.

> "Itxialdiarekin gu ez gara ia enteratu", diote; ez da harritzekoa, hainbeste leku barruan, kanpoan, baratzea... itxialdian luxua izan den guztia izan dute bertan

Itxialdiak itxialdi, munduak aurrera darrai eta baita lekaimeek ordainketarako jarritako epeak ere. 2020ko urrirako ordaindu behar zuten, baina koronabirusa tartean, mojek abendura arte luzatu diete azken ordainketa. Horretan ari dira orain: zati bat ordaindu dute, beste bat maileguekin hornituko dute eta beste bat herritarrek jarritakoarekin. Neska ezezagun batek, adibidez, 10.000 euroko ekarpena egin die proiektuak erakarrita, eta bestelako diru ekarpenak ere jasotzen ari dira. Itsulapikon irailaren 7an hasi berri den *crowfunding*-arekin egingo dute azken txanpa.

## ARMIARMA HIRIAN

Osteguneko 10:00ak dira eta Aitor Carlosen zain da Iruñeko La Merced kaleko Bakearen Etxean. Han da Lurreko kontsumo taldearen egoitza eta ostegunero Carlosek bertan uzten ditu baratzean jasotako barazkiak. Gero San Agustin kalean den Jateko kontsumo taldera doa, eta pasatuko da baita ere Geltokitik –Iruñeko autobus geltoki zaharra– eta Kale Nagusiko Joxenea denda ekologikotik. Horrez gain, inguruko beste produktore txiki batzuekin trukea ere egiten dute Amaraunan ekoizten ez dituzten produktuak eskuratzeko. "Egun on, Carlos, zer moduz?", Gazan baino hobeto bai behintzat, bota du irribarrez.

Carlosek 43 urte ditu eta argia da bere azalpenetan: "Nik ezin dut bizitza baratzerik gabe ulertu. Nire ekarpena hortik egiten dut: lurra zainduz eta baratzetik, elikaduraren bidez osasuna emanez". Baratzeko lanetik bizi da, baina lana eta aisia ez ditu lurretik bereiziak ikusten: "Sormena ere bada, batzuetan pentsatzen dut landatzen duzun guztiaren koadro bat dela baratzea. Aldi berean, erresistentziarako espazioa ere bada, ez baikara asko molde honetan bizi garenak".

Ekologikoan, bizpahiru pertsonek eramandako ortuarekin eta bertatik biziz... "hiruzpalau besterik ez gara Sakanan; Nafarroa osoan hamarren bat ba ote gara?", dio Carlosek. Grina dario lurraz berbetan, baina bekokia iluntzen zaio etorkizunera begira, gainbehera ikusten du lurra: "Iragana eta geroaren arteko hari bat moduan sentitzen naiz, jende gazteak ez du molde honetan aritu nahi. Ez da lortu lurrarekiko maitasuna transmititzea. Martxotik urrira honek ez du atsedenik, etengabe lurrari eskainia, baina gero urritik martxoaren erdira arte ezer gutxi egiten dut, nagusiki uzta jaso eta banatu. Baratzearen lan erritmoan garaiak agintzen du, eta hori ez dator bat egungo kultura urbanoak ezarri dituen denbora erritmoekin".

## PERTSONA ETA KOMUNITATEA

Abuztuko arratsalde euritsuan komunitateaz ere jardun dugu mokadu artean. Hemen komunitate bat osatzen ari dela esan diegu eta haiek baietz, "baina apurka, behartu gabe" diote azkarregi joatearen beldur. Itsaso Lakabetik dator eta han komunitate zentzua estua eta sakona da. Oro har, denek garbi dute: "Hemen bakoitzak bere bizitza garatuko du eta guztion artean Amaraunako proiektua aterako dugu aurrera".

Bakoitzak bere ekonomia du, baina ohiko bizitzako hainbat osagai partekatzen dituzte: janariak, kotxeak, zaintzak, lan batzuk –batez ere baratzekoak–... Webgune berrian ere argi mintzo dira zertarako ari diren lanean: "Espazio bat non askatasunean harremandu gaitezkeen, konfiantzan, errespetuan eta komunikazio on batean oinarrituz, gure nahi indibidual zein kolektiboak ase ahal izateko; gure ingurumena zainduz eta burujabetza osoa lortzeko bidean aurrera eginez".

> 3.000 $m^2$-ko eraikina dute eta 30.000 $m^2$-ko espazioa lurra landu eta bakoitzak bere proiektuak elikatzeko, guztia 320.000 eurotan erosteko aukerarekin

Euria ari du oraindik, Carlosek patatak sailkatzen amaitu du eta berriketara batu zaigu, berau amaitzear dela. Abuztuaren 27tik 30era Revolución Integralekoak etorriko dira eta zalaparta ederra izango dute bertan. Datozen hilabeteak intentsitate handikoak aurreikusten dira Amaraunan. Iruñerako bidea hartu dut, elkarrizketa zatiak buruan eta batzuetan ametsak egi nola bilakatzen diren bertatik bertara ikusiz; batez ere bilatzen, lantzen eta borrokatzen direnean. XIX. mendean eraikitako habia funts putre baten eskuetan erortzea izan zitekeen ohikoena gaur egun; botako zuten eraikina, baratze ederra suntsitu eta, haien ordez, kasurik onenean, etxebizitzak eta parke berde bat eraikiko zituzten. Zortea izan du errota zaharrak. ●

**ETXEKO LANGILE EGOILIARRAK**

# LAN ESKLABOA BADA, ABOLITU EGIN BEHAR DA?

Astean 60 ordu baino gehiago egiten dute lan, nahiz eta kontratuak (baldin badago) adierazi 40 behar dutela. Soldata 1.000 eurotik urrun dago, gau eta egun zainduaren esanetara daude, eta lantokian ez daukate intimitaterik. Zaindua hiltzen bada edo familiak langilearekin ez jarraitzea erabakitzen badu kalean geratzen dira langabezia eskubiderik gabe. Etxeko langile egoiliarrak, gehienak migratzaileak, ia-ia esklabotza baldintzetan aritzen dira lanean eta botere harreman arrazista, klasista eta sexistetan oinarritutako tratua jasaten dute.

JUNE FÉRNANDEZ ECUADOR ETXEA

Emakunderen ikerketa baten arabera, EAEko etxeko langileen %70 baino gehiago latinoamerikarrak dira, gehienek dirua bidaltzen dute etxera, eta erdiek zorra egin dute bidaia egin ahal izateko. Argazkian, Bilboko etxeko langileak haien eskubideen alde ari dira protestan.

Pikara online magazine

Erreportaje hau Pikara Magazinek argitaratu du gaztelaniaz eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu. ARGIAk ekarri du euskarara.

Artikulu honetan emakume migratzaileen eta etxeko langileen elkarteei galdetu diegu ea estrategikoa den politikoki eta sozialki eragitea 24 orduz zaintzen duen etxeko langilearen jarduera desagertu dadin.

Espainiako Estatuak oraindik ez du berretsi etxeko langileentzat lan duina eskatzen duen Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena. Onartuko balu, hainbat eskubide bermatu beharko lituzke, besteak beste langabezia-prestazioa. Hitzarmenak egoiliarren berezitasunak erregulatzen jartzen du indarra, esate baterako, soldataren zati bat 'espezietan ordaintzeko' joera ezabatzen, zenbat orduz egon behar duten lantokian zehazten, eta gauez lanerako prest egon beharra mugatzen. Europako Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera, gaueko orduak ere lanordutzat hartu behar dira, sendagileekin edo suhiltzaileekin gertatzen den bezala.

Langileek ez dute pribatutasunik eta kontrolatuta daude. Askok ez dute norberarentzako logelarik eta zaintzen duten pertsonaren gela berean egiten dute lo. Ohikoa da enplegatzaileak behar baino elikagai gutxiago eskaintzea, zenbat fruta ale jan dituen zenbatzea, zenbat aldiz dutxatu den kontrolatzea edo ile lehorgailua zenbat erabili duen kontua eramatea. Neurrigabeko halako jardunbideak jasotzen ditu *Zeinek zaintzen du eta nola Vitoria-Gasteizen?* (Zentzuz Kontsumitu, 2018) ikerketak. Horrelako lan baldintzek langileen osasun fisiko eta mentalean eragiten dute, eta nekea, estresa, antsietatea eta insomnioa izaten dituzte. Lan Ikuskaritzak argudiatzen du etxe barruan gertatzen dena ezin duela kontrolatu, eremu intimoak direlako. Familiek zigorgabetasun egoera baliatzen dute, "eta baita baldintza txarretan lan egiteko prest dagoen langile saldoa dagoela. Behar

ekonomikoak edo Espainiako Estatuan egoera legalean bizitzeko arazoak dituzte", dio ikerketak.

Orduan, desagertu beharko lukeen erregimena al da? Erreportaje honetarako elkarrizketatutako emakume migratzaileen eta etxeko langileen elkarteetako kide gehienek irmo diote baietz. Egunean 24 orduz eta astean zazpi egunez isolatuta lan egiteak giza eskubideen, lan eskubideen eta emakumeen osasunaren aurka egiten du. Bilbon egoitza duen Trabajadoras No Domesticadas (Etxekotu Gabeko Emakume Langileak euskaraz) elkarteko kideek hala diote: "Barruan zer dagoen ikusi behar da. Etxe barruko lana onartzeak zaintza pribatizatzen, indibidualizatzen, feminizatzen, merkantilizatzen eta monetarizatzen du. Muinean dauden zapalkuntza ardatzak betikotzen dira eta langileek bortizkeria, botere gehiegikeria eta tratu txarren zurrunbiloak bizi behar izaten dituzte. Gizonak arduretatik aske geratzen dira, emakume batzuk beste batzuengatik ordezkatuz. Ez ditu jokoan sartzen erakundeak, ez da guztion gaitzat hartzen, eta ez da bestelako irtenbiderik lantzen".

Interneten gaztelaniaz '*abolición-régimen-interna*' hitzak bilatuz gero, emakume feminista eta sozialisten Pan y Rosas elkartearen artikulua agertzen da. Etxeko langileak biltzen dituen erregimen berezia eta egoiliarraren esklabotza lana desagerraraztea eskatzen dute. Ángels Vilaseca artikuluaren egileetako bat da eta langile ohia. Berak eta Rita Benegasek hitz egin dute Pikara Magazinerako. Benegasek sektorean lanean jarraitzen du eta Paraguaitik Espainiako Estatura joan zenean egoiliarra izan zen. Elkartean adostasunera iritsi ziren hainbat langile migratzaileren artean izandako eztabaiden ondoren: "Ia inoiz ez dira betetzen legeak agindutako atseden orduak. Bizitza propiorik gabe geratzen gara, eta gainera esaten dizute

soldataren zati bat janariaren eta aterpearen truke dela. Guretzat espetxean egotea modukoa da-eta!".

Benegasek dio etxekoandreak etxean giltzatuta uzten zuela etxetik ateratzen zenean eta ez ziola telefonoz hitz egiten uzten: "Migratzailea izateagatik gutxiesten ninduen. Eta jakina, baldintza horietan lan egitea onartzen duzu, paperik ez duzunez besterik aurkitzea zaila delako. Askok beltzean egiten dute lan, huskeria kobratuta. Kontratua izateak ere ez du bermatzen dauzkagun eskubide gutxiak betetzea; hain zuzen, nagusi asko kontratuaz baliatzen dira xantaia egiteko eta gehiago zapaltzeko".

## MIGRAZIO EGITASMOAK

Beste elkarte batzuetan, aldiz, eztabaida ez da amaitu. Bilboko Torre de Babel elkartean emakume migratzaileak elkartzen dira, gehienak etxeko langileak eta zaintzaile egoiliarrak. Kideek lehentasuna ematen diote epe motzean bermatzeari bizitza propioa izatea, atsedena hartzea, gozatzea, eta era berean behar material eta afektiboei erantzutea.

Uste dute abolizioaren alde edo kontra egiteko asko eta lasai hitz egin beharko litzatekeela, inor ez dadin epaitua edo mehatxatua sentitu lan mota hori desagertzen bada. Askorentzat, eta ez iritsi berrientzat soilik, etxeko langile egoiliar moduan lan egitea bizirauteko modua da: alokairua eta janaria ez ordaintzeak aukera gehiago ematen die etxera dirua bidaltzeko eta handik hona etortzeko egindako zorrak kitatzeko. "Horregatik, garrantzitsua da gure migrazio egitasmoen ertz guztiak ezagutzea eta denon artean osasun fisiko eta emozionalerako estrategia ez hain latzak bilatzea".

EAEko Immigrazioaren Euskal Behatokiaren arabera, atzerriko langileen %57 eta espainiartasuna lortu duten migratzaileen %37 etxeko lanetan eta zaintzan aritzen dira. Emakunderen ikerketa batek horien ezaugarriak jasotzen ditu: %70 baino gehiago latinoamerikarrak dira, gehienek dirua bidaltzen dute etxera, eta erdiek zorra egin dute bidaia egin ahal izateko. %20k arazoak ditu oinarrizko beharrak betetzeko: elikadura, arropa, oinetakoak, etxebizitza. Eta %36k ezusteko gastuei aurre egiteko arazoak ditu.

Madrilgo Servicio Doméstico Activo (Sedoac) elkartea etxeko langile egoiliarraren erregimena desagertzearen alde dago, baina Carolina Elías presidenteak uste du Atzerritarren Legeak bultzatzen dituela emakume migratzaileak horrela lan egitera: "Ez pagotxa delako, legeak berak kriminalizatzen zaitu, paperik gabe bizi behar duzu hiru urtez, eta paperik gabe egoiliar lana baino ez dute aurkitzen". Beste arrazoi ikaragarria gehitu du, erbesteratuak izateko beldurra: "Etxeko langile izanda bestelako lanetara joateko autobusetik autobusera ibilita baino babestuago daude poliziarengandik". Egiari zor, lan eta bizi diren etxeak ez dira eremu seguruak. "Enplegatzaile batzuek pasaportea kentzen diete eta hala esan: "Ez badituzu baldintzak onartzen poliziari deituko diot. Edo paperak agintzen dizkiote eta lan baldintzak gogortu".

> *"Gu salbatzera etorriko diren emakume zuri pribilegiatuen begirada paternalistarik ez dugu behar, aliatuak nahi ditugu"*
>
> **CARMEN JUARES PALMA**
> HONDURASKO ETXEKO LANGILE EGOILIARRA

Langile askoren ustez, etxeko langile egoiliarren erregimena deuseztatzeak eta Atzerritarren Legea indargabetzeak eskutik joan behar dute

Carmen Juares Palma Bartzelonako Asociación Mujeres Migrantes Diversas elkarteko koordinatzailea da. 19 urterekin utzi zuen Honduras eta egoiliar hasi zen lanean 750 euroren truke, aparteko ordainsaririk gabe. Migrazio ibilbideak aurrera egin ahala, onartzen du desberdin hautematen dituela kontuak: "Pobreziatik eta bortizkeriatik ihesi zatoz, paperik gabe, diru gutxirekin, eta egoiliar moduan lana aurkitutakoan pozik sentitzen zara, ia eskertuta. Geroago konturatuko zara esplotatu zaituztela. Orduan antolatu eta aurre egiten diozu". Kontratazio agentzien lan negargarria azpimarratu du: "Esplotazioaren bidez aberasten dira". Maiz paperik gabeko emakumeak hartzen dituzte, familiei esaten diete paperak badituztela eta agentziak Gizarte Segurantzaren kotizazio zatiarekin eta aparteko ordainsariekin geratzen dira.

Pan y Rosas elkartean uste dute egoiliar lana desagerrarazteak ezin duela izan erabaki isolatua, emakume migratzaile "askorentzat pobreziatik, egoera irregularretik eta etsipenetik ateratzeko modua delako". Ezinbesteko borrokatzat dituzte Atzerritarren Lege atzerakoia indargabetzea eta kontratuaren beharrik gabe paperak denentzat izatea. "Agian, konpondu gabe dauden kontu horiek iraultzen jarri behar dugu indarra; eta sekula ez dugu babesik aurkitu behar defendagarria ez den horretan", diote Etxekotu Gabeko Emakume Langileak elkarteko kideek.

## ZAINTZARI HELDU BEHAR ZAIO

Eztabaida honetan Atzerritarren Legea gakoetako bat bada, beste gakoa 2006ko Menpekotasun Legea da, zeina PPk desegin zuen eta orain geldirik dagoen. Espainiako Estatuan 265.000 pertsona menpekotasun laguntzak jasotzeko zain dago eta 139.000 pertsona baloratzio zain. Sistema publiko integralaren gabeziari aurre egin eta menpekotasuna dutenen zaintza beharrak asetzeko bi bide defizitario erabiltzen dira: familiako emakumeek doan egiten dute lan edo beste emakume batzuk kontratatzen dira baldintza txarretan, baita prestakuntza profesionala behar duten zaintza bereziak egiteko ere. Gainera, Zentzuz Kontsumitu-ren ikerketaren arabera, ohikoa da zainduaren menpekotasuna areagotzen den heinean langileari egiteko eta denbora gehiago eskatzea soldata beraren truke.

Pan y Rosas elkarteko kideek gogorarazi dute zaharrentzako egoitza gehienak pribatuak direla eta gehiegizko prezioak dituztela, "gainera, lan prekarioari esker etekinak lortzen dituzte eta askok ez dute kalitateko arreta eskaintzen". Lan erreforma ere gogoan dute, zeinak familien eta langileen prekarietatea areagotzeko balio izan duen. "Egoiliar aritzeko eskaintzek gora egin zuten krisi garaian. Zortzi orduz lana egingo duenari 700-800 euro ordaindu beharrean, familiei hobeto datorkie soldata bera ordaintzea eta langilea 24 orduz edukitzea", dio Sedoaceko presidenteak.

2016an, Bizkaiko Etxeko Langileen Elkarteak aholku emandako langileen %74 zainduarekin baino ez ziren bizi etxean. Hortaz, zaintzaren ardura guztia zuten, eta legeak onartutako atseden tarteak ezin zituzten hartu. Irtenbidea

litzateke langileak txandaka kontratatzea, baina familiek ez dute bitarteko ekonomikorik horrela aritzeko, ez bada Frantzian, Suitzan edo Belgikan bezala, hau da, estatuek kotizazioa ordaintzen lagunduta.

Artikuluan aipatutako elkarteak ados daude Espainiako Estatuari eskatu behar zaiola populazioaren zahartzeak eragindako zaintza larrialdiari aurre egiteko bitartekoak jartzea: laguntzak, pizgarri fiskalak, eta egoitza eta eguneko zentro eskuragarriagoak. Etxekotu Gabeko Emakume Langileak elkarteko kideek diote Europako hegoaldeko herrialdeetan, iparraldekoekin alderatuta, nabarmen etxeko langile askoz gehiago kontratatzen direla. Iparraldekoetan babes publiko handiagoa dago eta gizonek ardura gehiago hartzen dituzte. Elkarteek aurrekontuak eta azpiegiturak eskatzen dituzte, baina baita "bestelako lan jarduerarik eskura ez dutenentzat aukera duinak".

## LOBBY FEMINISTA ABOLIZIONISTA?

Arduragabekeria politikoak interes politikoekin du zerikusia, dio Carolina Elías, Sedoac-eko presidenteak: "Enplegatzaileek ematen dute botoa, ez enplegatuek, zeren gehienak migratzaileak gara. Horregatik da garrantzitsua familiek eta langileek bat egitea, estatuari irtenbideak eskatzeko". PPk 2024ra atzeratu zuen Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak 2020an bultzatu nahi zuen neurri bat: etxeko langileen kotizazio-oinarriak soldatarekin bat etortzea. Lege horren arabera, aditu taldea osatu behar zen baina oraindik ez da osatu.

Pan y Rosas elkartekoak ez dira fio estatu kapitalisten jardunbideaz eta behatu dute Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena sinatu duten herrialdeetan ere, lan baldintzek oso txarrak izaten segitzen dutela. Eremu desberdinetako langile prekarioen mobilizazio sozialean sinesten dute, etxez etxeko langileak eta hoteletakoak dituzte gogoan, adibidez.

Sindikalismoa ere ez da arduratu sektore honetaz, lan eskubide kolektiboak ukatzen zaizkio, hala nola, afiliazioa, greba eta negoziazio kolektiboa. Zentzuz Kontsumituren ikerketak dioenez, Italian, Frantzian eta Alemanian hitzarmen kolektiboak egin dira, beraz ezbaian jartzen du hemen erabiltzen den aitzakia; alegia, ezinezkoa dela hitzarmen kolektiboa patronala etxea bera delako.

Pankartak hala dio: familia agurgarriak ez dio ordaintzen etxeko langileari.

Halako testuinguruan, ba al luke zentzurik egoiliarraren erregimen berezia indargabetzeko plataforma feminista sortzeak, prostituzioan edo haurdunaldi subrogatuan bezala? "Gu salbatzera etorriko diren emakume zuri pribilegiatuen begirada paternalistarik ez dugu behar, aliatuak nahi ditugu", erantzun du Carmen Juares Palmak. Katalunian sindikatu, auzo elkarte eta ordezkari politikoekin egiten duten lana azpimarratu du. Madrilen, Sedoac elkarteak Etxeko Langileen Ahalduntze Zentroa inauguratu du eta presidenteak atsekabez dio feminista zuriengandik babes txikia dutela: "Beraiek deitutako elkarretaratzeetara denok joaten gara, baina gutxi batzuk datoz gureetara. Esaten dute denoi eragiten diguten aldarrikapenen alde egin behar dela borrokan lehendabizi, eta ondoren, gutxiengoez arduratu. Gutxiengotzat hartzen nauzun bitartean arazo bat daukagu".

Mugimendu feministaren gehiengoak bizitza eta zaintza erdigunean jartzearen mantra errepikatzen du, baina agendan ez ditu lehenesten etxeko langileen aldarrikapenak. "Agian deseroso sentiarazten gaitu eta besteen prekarietatearen bizkar eutsitako pribilegioak ezbaian jartzen dira?", galdera egin dute Etxekotu Gabeko Emakume Langileak taldekoek. Beraientzat egokia da egoiliarraren erregimena deuseztatzearen aldeko plataforma feminista sortzea, zeren "ezinbestekoa da esklabotza eta bortizkeria hutsa agerian utziko dituen mezu apurtzaile eta indartsua kaleratzea". Bortizkeria estrukturala, instituzionala, baina baita familia enplegatzaileek "hemen eta orain" gauzatutako indarkeria zehatzak ere. Jarrera bortitza da zaintzaren gaineko ardura birkokatzearen gatazkari iskin egiterakoan emakume bat esplotatzen bada.

> Ba al luke zentzurik egoiliarraren erregimen berezia indargabetzeko plataforma feminista sortzeak, prostituzioan edo haurdunaldi subrogatuan bezala?

Juares Palmak kontatu du ikastaro batean emakume batek esan ziola egoiliar bat kontratatu zuela aita ezin zuelako zaindu eta horrek bere burua esplotatzailetzat hartzearen ezinegona piztu ziola. Juares Palmaren ustez, deserosotasun horrek balio behar du gure begirada aldatzeko eta etxeko langileen borrokarekin bat egiteko. "Uler ezazue ondokoa: kide migratzailearen eskubideak defendatzen badituzue, aldi berean zaintza duinaren alde egingo duzue, zeuok zahartzen zaretenerako". ●

COVID ONDORENEAN

# Enplegua Banatzeko Kontratu berri bat, enplegua sortzeko eta banatzeko

Juantxo Bazán Zuzenbidean lizentziatua da eta Kantabriako Castro-Urdialesko Tailer Eskolako zuzendaria da, egun, errelebo kontratuan. El Salto-Hordago hedabidean argitaratu duen artikuluan azaldu du enplegua nola banatu daitekeen egungo testuinguruan. Itzulita eta laburtuta irakurgai ekarri dugu.

JUANTXO BAZÁN

HORDAGO EL SALTO

Elkarrizketa hau El Salto - Hordagok argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Enplegua banatzearen beharra azaltzea zerbait oso konplexua da egun, beste diskurtso indartsu batzuen itzalean geratzen baita: Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (pobrezia bezain erraz ulertzen dena), Oinarrizko Errenta Unibertsala (agian ulertzen da baina ez du konbentzitzen) edo Lan Bermatua (Keynes bezain formula klasikoa da, baina agian ez du prekarietate bermatua besterik ekarriko: aldi baterako kontratuak, estatuaren aurrekontu orokorretatik sustatuta).

Jarraitu aurretik, aurreratuko dut Enplegu Banaketa aldarrikatzen dudala, baina horretarako beharrezko da hainbat gauza argitzea. Lehena: lanaldia murriztea ez da enplegua banatzea, nahiz eta enplegua banatzeko beharrezkoa den lanaldia murriztea. Enpleguaren banaketak badu lotura bat borondatearekin, ez du zerikusirik lanaldia murrizteko neurri makroekonomikoekin, langileak baitira erabakitzen dutenak enplegua banatzea, eta horrekin lanaldia murriztea. Ondorioz, langileak dira beren lan denbora kontrolatzen dutenak.

Bigarren ezaugarria da Administrazioak parte hartzen duela, sustatuz langileek beren enplegua banatu dezaten diru iturriak murriztu gabe (soldata eta pentsioa), beti ere horrekin langabezian dagoen pertsona bat kontratatu dadin.

Eta hirugarren ezaugarria da enpresariek parte hartu behar dutela prozesu horretan, eta hau egingo dute ikusiko dutelako enplegua banatzea erabilgarria eta errentagarria dela beren enpresentzako.

> Egungo errelebo kontratuaren adina nabarmen jaistea defendatzen du artikulu honek, langileek enplegua banatu arren diru kopuru bera irabazi eta kotizazioak mantendu ahal izan ditzaten

Ez da Zeelanda Berrira edo Suediara jo behar enpleguaren banaketa ulertzeko. Gakoa Errelebo Kontratua arautzen duen Langileen Estatutuan dago. Adin zehatz batetik aurrera (62 urte eta 8 hilabete) eta Gizarte Segurantzan kotizatutako 33 urterekin, langileek erretiro partziala har dezakete. Adibidez: lanaldiaren %50 egiten jarraitu eta beste %50 erretiro partziala izan, kotizazioen oinarriaren %100 mantenduz.

Lanaldia murrizteko baldintza enplegua banatzea eta sortzea da, hau da, langabezian dagoen (edo enpresa berean aldi baterako kontratua duen) pertsona bat kontratatzea, hutsik geratzen den lanaldia betetzeko. Esan daiteke Errelebo Kontratua enplegua banatzeko baliabide bat dela lan bat bitan bihurtzen den bakoitzean.

Kontua da egungo Errelebo Kontratura oso pertsona gutxik dutela sarbidea, lanean gazte hasi eta modu jarraituan aritu direnak galzorian dagoen espeziekoak baitira. Izatez, 2019an Espainiako Estatuan errelebo kontratuan aritu zirenak 8.193 izan ziren, urte horretan egin ziren mila kontratutik lau baino gutxiago.

Horregatik Errelebo Kontratua egokitu behar da benetan izan dadin enplegua banatzeko kontratu bat. Eta hori justu orain egin behar da, prekarietatea arau denean, langabezia ate-joka denean, eta enpleguaren etorkizuna noraezean dagoenean. Enpleguaren Banaketarako Kontratu berriarekin, adin batetik au-

rrerako pertsonek, demagun 55 urtetik gorakoek, eta hamabi urte kotizatuta izanez gero, lan gutxiago egin eta partzialki erretiroa hartzeko aukera izango lukete, beti ere langabezian dagoen pertsona bat kontratatuta.

Formula askotarako aukera ematen du, langileen behar pertsonal eta familiarrak kontuan hartuta, eta enpresen antolaketa beharretara egokituta, baina ohiko egoera izango litzateke langileak lanaldia %50 murriztea, erretiro partziala ere %50ekoa izanik. Eta enpresak lanaldiaren %50 horretarako langabezian dagoen beste pertsona bat kontratatuko luke. Esango dute hau oso garestia dela Gizarte Segurantzarentzat, eta ez dut hori ukatuko, baina konbentzituta nago kostu hori ederki berdinduta dagoela ekarriko dituen onura sozial eta ekonomikoekin, besteren artean Gizarte Segurantzara gehituko diren kotizazioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergekin (PFEZ) eta baita ere kontratatuak izan diren pertsona horiei ordaindu beharko ez zaizkien langabezia sari edo gutxieneko errentekin.

Ez dirudi langileek planteamendu honi eragozpenik jarriko diotenik, beti ere kotizazio oinarria mantenduko zaiela bermatzen bazaie, beren etorkizuneko jubilazioaren zenbatekoari eusteko. Administrazioak ere ez luke gutxietsi behar behin betiko enplegua sortzen duen kontratu mota bat, ekonomikoki eta sozialki dituen ondorioek bideragarri eta eraginkor egiten baitute. Eta enpresek? Enpresariek zergatik jarri behar dute sinadura Enpleguaren Banaketako kontratu batean? Bi pertsonak launa orduan gehiago eta hobeto lan egiten dutelako langile bakarrak zortzi orduan baino.

Enpleguaren banaketarekin enpresek ez lukete soldatetan kostu gehiago izango, edo ez sumatzeko modukorik behintzat, eta produktibitatea irabaziko lukete, hori izanik beren kezka nagusia. Enplegua banatzen duen langilearen esperientziari batzen zaionean erreleboari eusten dion langilearen esperientzia, gehitu egiten dira negoziorako aukera teknikoak eta antolaketako aukerak, eta formazio trukea errazten da, lan giro osasungarriagoa ereinaz.

## ENPLEGUA BANATZEA EZ DA LANA BANATZEA

Argitu beharrekoa da hau. Enplegua banatzea ez da lana banatzea, lanak guztiak baitira, bai produktiboak eta baita erreproduktiboak ere, ordaindu gabekoak, zeinak oso modu ezberdinean emakumeen bizkar uzten diren (hauek dira gehienbat etxeko lana eta familiaren zaintza egiten dutenak). Enplegua banatzea aukera da genero berdintasunean aurrera egiteko, oreka sortuz lan produktiboaren balioaren, hau da, enpleguaren, eta lan erreproduktiboaren artean. Langabezian dauden emakumeak enplegura sartzeko aukera ematen du eta gizonak zaintzaren ekonomian sartzekoa, beren denboraren kontrol handiagoa izanik.

Gai korapilotsu hauek ezin dira formula matematikotan sinplifikatu, inolaz ere, eta eztabaidagai izan behar dira COVID-osteko gizartean. Galdera hauek aukera eman behar dute bidea egiteko ekologikoki justuagoa eta berdinzaleagoa den ekoizpen eredura, eta balio behar dute larrialdi sozial, sanitario eta klimatikoaren erronkari aurre egiteko, eta baita ere pertsonak izan daitezen lehena: izan ere, hori aspertu arte esaten badugu ere, adierazpen erretoriko huts bihur daiteke, ez bada proposamen zehatzetan hezur-mamitzen.

"Esango dute hau oso garestia dela Gizarte Segurantzarentzat, eta ez dut hori ukatuko, baina konbentzituta nago kostu hori ederki berdinduta dagoela ekarriko dituen onura sozial eta ekonomikoekin"

Horregatik, ziurgabetasun konplexu eta astun honetan urrats eraginkorrak eman ditzagun, uste dut hasi beharko genukeela Enplegua Banatzeko Kontratu berri honen moduko neurriekin, zeinak azaltzen duen oso ekuazio xinple batekin zergatik den 1 = 2, beti ere 0,5 + 0,5 gehiago denean 1 baino. Ulertzen da? ●

IRUÑEAN, EUSKARAZKO ESKAINTZA HAUR ESKOLETAN

# *Herri haur eskolarik ez da izango, denentzako euskarazko plazarik ere ez*

Hasi berria da ikasturtea, baita Iruñeko haur eskoletan ere. Udal gobernuak euskarazko ereduan murrizketak iragarri eta herritarrek kolektiboki erantzun bazuten ere, aurten herri haur eskolarik ez da izango hiri buruzagian, antolakuntza eta finantzaketa arazoak tarteko. Eskaintza murritzera egokitu beharrean izan dira haurrak.

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA JAGOBA MANTEROLA / FOKU

Korapilatsu hasi zuten urtea Iruñeko guraso euskaldunek. Navarra Sumaren eta PSNren udal gobernuak euskarazko haur eskolen eskaintza gutxiagotuko zuela iragarri zuen: lau eskolatik bira, eta plaza kopuruen portzentajean, %36tik %12ra. Familiak kalera irten ziren makina bat bider, hizkuntza eta hezkuntza eskubideak berma daitezela aldarrikatzera. Ez dirudi, baina, eskubideok bermerik dutenik Enrique Mayak agintzen duen hirian. Gauzak horrela, hainbat guraso eta hezkuntzako eragile antolatu ziren, eta HE Gurasoak plataforma sortu, kooperatibarantz urratsa eman eta lanerako antolatu ziren udalaren hutsunea estali nahian.

Interesa azaldu zuten 70 familiaren iritziak bildu eta hauen parte-hartzea eskatu zuten, guztien artean behin-behineko proiektua eraikitzeko. Behin-behinekoa, izan ere, hiltzeko jaio zen proiektua, euskararen hutsunea bete eta udal gobernuari presioa egiteko. Maiatzaren amaieran, haur eskola publikoen aurre-matrikulazio epea jada hasia zela, Berriozarren lokal bat aurkitu zutela iragarri zuten. Nutrizio plana ere egina zuten ordurako. Bazirudien gauzatzera zihoala herri haur eskola, baina pandemiaren garaian antolaketa arazoak izan dituzte. Ume askirik ez zegoela adierazi zuten zabaldutako oharrean, ezta "izaera herritarra emango liokeen finantzaketarik" ere. Hala, beraz, aurten behintzat argirik ez du ikusiko proiektuak.

"Gauza askok izan dute eragina erabakia hartzerako orduan", adierazi du herri haur eskola kooperatibako kide Iñigo Otxoak. Ezinbestean, arrazoietako bat COVID-19a eta haren ubera izan da. Haur eskolako haurren zikloa "oso berezia" dela azaldu du Otxoak, eta are gehiago pandemia garaietan. Kasuistika ezberdinak daudela dio, baina batagatik edo besteagatik, oharrean adierazi duten bezala, guraso gehienek euren haurrak gertuen duten eskolara bidaltzea lehenesten dute, eta orain, gainera, segurtasun aldetik fidagarriena dirudienari eman zaio garrantzia. Azkenean, zerbitzu izaera lehenesten da horrela. Honela adierazi zuten oharrean: "Oraindik ere 0-3 zikloa hezkuntza ziklo bezala ulertu beharrean, zerbitzu izaera ematen zaiola ikusi ahal izan dugu. Kontziliazioa errazten ez duen gizartean, lanerako orduan umeak ahalik eta hobekien uztea dugu gurasook helburu, batzuetan etapa bakoitza ikas-etapa dela ahaztuta".

## BORROKAN JARRAITUKO DUTE

Momentuz argirik ikusiko ez duela esan arren, argi dute borrokan jarraitu behar dutela. Udazkenean, osasun egoerak baimentzen duen bitartean behintzat, Iruñeko Haur Eskolen organismoa bildu egingo da, eta bertan izango dira euskarazko hezkuntza, publikoa eta kalitatezkoa berma dadin eskatzeko. Eskariak luzatuko dituzte: "Bai geografikoki eta baita demokratikoki ere, haur eskolen banaketa eta plangintza justuagoa izan behar dela uste dugu, eta noski, baita kopuruz handiagoa ere". Horrez gain, mobilizazioekin aurrera jarraitzeko asmoa dute.

## ZIFRAK ETA DATUAK

Iruñeko Udalaren aginduz, Mercatec enpresa gipuzkoarrak inkesta bat luzatu zuen sendien nahiak biltzeko. Oposizioak, martxoan, Hezkuntza zinegotzi Fernando Sesma erreprobatu zuen, inkestaren datuak modu sistematikoan emateari uko egin izanak "informaziorako eskubidea galarazten" zuelako. Apirilean, alarma egoeraren erdian, egin ziren publiko jasotako datuak.

Galdekatutako familiek egun indarrean dauden ereduen artean aukeratu beharko balute, %22ak hautatuko luke euskarazko eredua –gehiengoak, %66ak, gaztelaniaren eta ingelesaren txandakako eredua hartuko luke–. Aukera ho-

Ohikoa da Iruñeko gurasoek umeak haur eskola publikoetan euskarazko ereduan matrikulatzeko arazoak izatea, plaza kopurua eskaria baino txikiagoa izaten delako. Protestak ere ohikoak dira. Argazkikoa aurtengo martxokoa da.

rietan, baina, bada distortsio moduko bat euskararen eta gaztelaniaren artean, izan ere, badira euskara zein gaztelania hutsezko aukerak, baina ez dago euskara ingelesarekin uztartzeko aukerarik.

Aldiz, eredu aukera zabalduz gero, bestelakoak dira inkestak dakartzan erantzunak: euskara barnebiltzen duten ereduak nahi dituzten familiak %36 dira. Justuki, Euskalerria Irratiak jakitera eman zuenez, aurreko ikasturtean %36a zen haur eskoletan euskara duen ereduren bat jasotzen zuen haur portzentajea. Kopuru hori, baina, lau urteren buruan eta era moderatuan bada ere, %12ra jaitsiko da Enrique Mayak eta bere udal gobernuak hala nahi izanda.

## MATRIKULAZIOEK ADIERAZTEN DUTE

Otsailean eginiko inkestak hala moduzko isla izan du hasi berri den ikasturterako aurre matrikulazioan. Plaza kopuru guztiak aintzat hartuz gero, aurten, 964 plazatik 316 eskaini dira euskaraz (%32,78). Hau da, iaz baino gutxiago baina datorren urtean baino gehiago. Inkestaren datuekin alderatuta, udal gobernuak arrazonamendu gisa erabiltzen duen eskaria eta eskaintzaren parametroak baliatuz gero, ez dirudite zifra eskasak, baina zenbakiak baino are garrantzitsuagoa eta kezkagarriagoa da euskarazko eredua duten zentroen kokalekua, hala uste du behintzat Administrazioan Euskaraz Taldeko Joseba Otanok: "Euskarazko eskaintza dagoen auzoetan ez gara gaizki geratzen, baina auzo gehienetan gaztelaniazko –edo gaztelania eta ingelesezko– eskaintza besterik ez dago. Nola ez dute, bada, irabaziko?".

Txantrea auzoan euskarazko eskaintza besteen gainetik nabarmendu da, baina 50etik 12 plaza bete gabe geratu dira; antzerako kopurua eskaini da Arrotxapean, baina hor ere plaza bakan batzuk hutsik daude. Bestetik, Donibanen, 31tik 27 plaza bete dira, eta Arrosadian, berriz, 22tik 30ek eman dute izena; azpimarratzekoa da udalak bi auzo hauetan eskaintza "progresiboki" murrizteko hautua egin duela eta, beraz, iaz bertan matrikulatuta zeuden haurrek soilik izan dute aukera euskaraz jarraitzeko. Datorren urtean euskara desagertuko da bi haur eskola hauetan.

Lauko gobernua agintean jarri zenean, Otanok hartu-emana izan zuen politikariekin haur eskolen afera medio. Joseba Asiron alkateak euskarazko eskaintza auzo guztietara zabaltzea ezinezko bihurtu zuela dio, epe oso luzeak eskatzen zituelako, eta hortaz, Alde Zaharreko haur eskolarengatik –Nafarroako Gobernuak kudeatzen du– borrokatu zuten. "Lauko gobernua ez zegoen prest baina erdizkako bidea onartu zuen. Alde Zaharrean euskara sartu eta gaztelania mantendu; eta San Jorgen gauza bera. Euskarazko eskaria agertu zen, jakina, eta Mendillorrin eta Buztintxurin ere agertuko litzateke eskainiko balitz, D ereduko ikastetxeak baitaude bertan. Egia erran, auzo guztietan euskarazko eskaintza balego, guztietan agertuko litzateke euskarazko eskaria. Ziur aski, nagusi bihurtuko litzateke urte batzuen buruan". ●

# Reuters: berri fresko-freskoak txalupan

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Akisgran, 1850. Paul Reuter alemaniar enpresariak telegrafo linea bat jarri zuen abian, teknologia berri horren bidez berriak askoz azkarrago hedatzen zirela eta berriak inork baino lehenago jasotzea negozio probetxugarria zela jabetuta. Printzipioz, linea Berlinera iritsiko zen, baina Reuter konturatu zen Akisgran Bruselarekin lotzeak etekin gehiago ekarriko zizkiola, Belgikako hiriburua XIX. mendeko finantza gune nagusietakoa baitzen.

Londres gune are garrantzitsuagoa zen eta hara joan zen enpresaria 1851n, Mantxako kanala Calaiseko itsasartetik zeharkatuko zuen "urpeko telegrafoa" prestatzera. Urte amaieran, telegrafo linea abian zen eta, gainera, Reuterrek Londresko burtsarekin negoziatu zuen bertako finantza informazioa Europan zabaltzeko. Tratu bera egingo zuen aurrerago Parisko burtsarekin.

Baina hazten jarraitzeko hurrengo jomuga ozeanoaz bestaldean zegoen, AEBetan, eta Atlantikoa zeharkatuko zuen kablerik ez zegoen. Konponbidea pentsatu baino hurbilago topatu zuen, Irlandako hegoaldean. Reuterrek telegrafo linea Cork hiriraino eraman zuen. Ipar Amerikatik zetozen ontziak irlandar kostaldetik gertu pasatzen ziren Londresera iritsi baino lehen. Puntu horretara iristean, transatlantikoan AEBetako informazioz, dokumentuz, eskutitzez eta telegramaz betetako edukiontziak prestatzen zituzten. Ondo itxi eta uretara botatzen zituzten. Edukiontziak agentziaren txalupa batek jaso eta lehorrera eramaten zituen orduan. Informazioa Corketik berehala telegrafiatuta, itsasontzia baino lehen iristen zen Londresera. Esaterako, 1865ean, AEBetako presidente Abraham Lincoln hil zutenean, Reuter's Telegram Company izan zen Europan horren berri ematen lehena.

PAUL JULIUS REUTER (1816-1899)

RUDOLF LEHMANN

Sortu eta 170 urtera, Reuters munduko berri agentzia nagusietakoa da oraindik. 94 herrialdetako 200dik gora hiritan ditu egoitzak. Baina eskandalu batzuk ere pilatu ditu azken urteetan. 2006an *Reutersgate* delakoa gertatu zen: Libano eta Israelen arteko gatazkari buruzko argazki batzuk manipulatu izanaz akusatu zuten agentzia. 2016an, Bagdadeko merkatuan 8 hildako eragin zituen atentatu baten berri eman zuen agentziak, baina hainbat iturrik albistea faltsutzat jo zuten; ustezko biktimak figuranteak omen ziren. Iaz argitaratutako dokumentu batzuei esker egiaztatu zen 1960ko eta 1970eko hamarkadatan Erresuma Batuko gobernuak finantzatu zuela Reuters, Ekialde Hurbilean hedatu zedin…

Gaur egun, itxuraz, txalupatxo bat ez da nahikoa konpetentzia atzean uzteko. ●

ANTIQUITY

# Arrapalak eta mugikortasuna Grezian

Antzinako Greziako hainbat tenpluen sarreretan, eskailerez gain, arrapalak topatu dituzte. Epidauroko Asklepio medikuntzaren jainkoaren tenpluan (irudian), esaterako, 11 arrapala iraunkorren arrastoak daude. Elementuok ez dira orain arte berariaz aztertu, eta tenplu barrura objektu astunak edo sakrifikatzeko animaliak sartzeko erabiltzen zituztela uste izan da. Baina Debby Sneed arkeologoak beste hipotesi bat du: mugikortasun urria zuten pertsonei sarbidea errazteko jartzen zituzten arrapalak. Batetik, sendatze-tenpluetan bereziki ugariak dira arrapalak. Bestetik, jakina da urritasun fisikoa zuten eta, ondorioz, lanik egin ezin zuten gizonezkoek pentsio moduko bat jasotzeko aukera zutela. "Ez dezagun pentsa antzinako Grezia utopia aurrerakoia zenik", dio Sneedek, "baina zenbait arazori aurre egiteko konponbide interesgarriak zituzten". ●

ZESTOAKO PORTALE KULTURGUNEA

# *Hemen baduzue leku bat*

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Aurrealde honetan ikusten diren mahai horietatik idazten dizut sarri, irakurle. Orain bezala. Goizean goiz xamar etorriz gero, lasai egoten da Portale kulturguneko jangela, goizeko kafea hartzera datozen lagunen joan-etorrien pausoek bakarrik altxarazten dute burua pantaila aurretik; zarataren molestiagatik baino, nor sartu den jakitearen kuriositateagatik.

Zestoako Portale kulturgunea da. 2018ko abuztuan irekia, orain bi urte, hain justu. Urte pare bat lehenago herrian sortutako Portale Kultur Elkartearena da lekua eta itxuraz taberna soil baten antza badu ere, badu beste indar bat. Urola bailarakoa bazara, irakurle, akaso noiz edo noiz gerturatu zara hitzaldi edo kontzerturen batera. Espazio honek forma desberdinak hartzen baititu, beharren arabera. Izan da zinema, mago baten eszenatoki, herriko zein kanpoko talde eta bakarlarien erakusleiho, hitzaldi, mahai-inguru eta eztabaidarako plaza... Herriaren bihotzean ekitaldiak antolatzeko gunea. Hori zen hasierako helburua eta izaten jarraitzen du. Zestoan urte osoko kultur-agenda eskaintzea. Herritarrek antolatua. Portale Kultur Elkartearentzat bezala, herriko beste edozein herri eragilerentzat irekia.

Proiektu honek atzetik buru eta esku asko ditu, argazkian aurpegi bakarra ikusten bada ere. Bazkideen babesean egiten du aurrera Portalek. Baina ez bazkideekin bakarrik, kulturgunera gerturatzen diren bezero guztiak ere bai baitira, nolabait portalekide; beraiek ere badira proiektuaren parte.

Txoko honetan goxo egon daitezen ahalegintzen gara beti, ahalik eta eskaintza egoki eta zabalena egiten, denek bila dezaten gustuko zerbait. Horregatik egin zen Portale 2019an ARGIA Jende. Ordurako *Berria* eta *Gara* egunkarietako harpidedun, euskal kazetaritza bultzatzeko pauso bat gehiago ematea erabaki zen, bezeroari kalitatezko prentsan irakurketa lasaiago bat eskaintzeko asmoz. Eta nolabait jokaldia borobilduz: "Babestu babesten zaituena, bultzatu bultzatzen zaituena".

ARGIAk Portalen egina du bere txokoa, eginak dituen bezala irakurleak.

Pentsatzen jarrita, horrelako zenbat leku ote daude Euskal Herrian ARGIA Jendea direnak, jendearen eskura aldizkaria dutenak? Horietako bat bazara eta zuek ere ARGIA Jendea zaretela adierazi nahi baduzue, idatzi harpide@argia.eus helbidera eta pozik emango dugu Komunitatea orri honetan zuen berri. ●

## ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.
Ongi etorri denei, komunitatera!

"Euskaraz egiten duen lana oso garrantzitsua iruditzen zaidalako eta bere argitarapenen lanketa eta ildoa atsegin ditudalako".

**Urretxuko Mikel**

"Kalitatezko edukiak sortzen dituelako, euskaraz eta euskal herrietan errelebanteak diren gaiak jorratuz. Erreportaiak eta monografikoak aipagarri".

**Donostiako Varun**

"Informazioa konpartitzeak libreago egiten gaituelako"

**Bilboko Txabi**

"Euskal Herrian, munduan gertatzen ari denaren berri izan nahi dudalako euskaraz eta ikuspegi kritikotik. Eskerrik asko zuen lanangatik".

**Hernaniko Kristina**

"Gure euskarako sarea sendotzeko nolabait".

**Donostiako Aitor**

# GARO POZOITSUTIK JAN

**JAKOBA ERREKONDO**
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Garoa oso ezaguna dugu mendietan. Garai bateko mendiaren kudeaketa publikoan garo arrunta (*Pteridium aquilinum*) kontuan hartzen zen mozkina zen. Otearekin (*Ulex spp.*) eta orbelarekin batera ongarrigai nagusia zen. Sutarako eta ikatzetarako egurra, eraikuntzarako zura, larrea, ehiza, fruitu eta perretxiko, ura, mea... zer ez du ematen mendiak? Hala jaso zuen Jean Duvoisinek 1858an argitaratutako liburuan, Laborantzako liburua edo bi aita semeen solasak laborantzaren gainean: "Ez da onthasunik oihanak bezenbat mozkin garbi ematen duenik". Gaur egungo herri mendi eta herri oihanen kudeatzaileren bati gogoraarazi behar esaldi hori... Egur ziztrin soilaren etekina besterik ikusten ez duten horiei. Pinuaren (*Pinus radiata*) jauntxo lehen eta egun eukaliptoaren (*Eucalyptus camaldulensis* eta *E. globulus*) aldeztaile direnak lotsagabe pospoloak landatzen ari direla gure mendietan dio gero eta jende gehiagok. Pospoloak landatzen esaten zaio, batetik, bi zuhaitz horien egurraren kalitate eskasak pospoloak bezala paper orea edo txotxak egiteko ez beste ezer gutxirako balio duelako, eta, bestetik, mendietan supizteko garbiak direlako, pinua baino galbidetsuagoa eukaliptoa. Pospoloak ez die mendia ikusten uzten.

Mendian garoa dago, ordea. Erruz.

Gero eta utziagoak dauden gure belardi eta larreetan, baita bide bazter eta abarretan ere. Sustraiak luzatuz garomenak hazi eta hazi egiten dira norabide guztietan. Hori nahikoa ez eta ugaltzeko, lore-fruitu-hazien ordez erabiltzen dituen esporak oso arinak dira eta haizearekin oso urrun oso erraz joan daitezke. Honek gure garo arruntaren hedapen izugarria ekarri du. Egun esan daiteke bere banaketa globala dela.

Beste arrazoirik ere bada horretarako. Azienda belarjalearen hortzak ez zaizkio berehalakoan hurbilduko. Garoak osagai pozoitsuak ditu eta horrek bazka izatetik itzuri du.

Zenbait animaliak jaten du, hala ere, garoa. Tartean geuk. Garo kimu berriak jateko ohitura oso zabaldua da Asia ekialdean, Japonian, Txinan... Korean "gosari" esaten diote; ez dakit goizeko otorduan jaten ote duten edo ez... Zopak, gatzetan kontserbatuak... Bi irakinaldi eman eta garbitzen dizkiote puntta berriak dituen pozoi arrasto arinak. Lurpeko errizoma lodiak ere eho eta ogi antzekoak egiteko erabiltzen dira; erabiltzen ziren, hobe esanda, eta pobrearen ogia esaten zitzaion. Iringai guztiak bezala hartzitu eta edari alkoholikoak egiteko egokiak dira. Siberian, adibidez, garagardo antzeko bat egiten dute. ●

TOKIKO BIO EKOIZPENAK

# LABORARI BIOLOGIKOEK MARTXAN JARRITAKO DENDA DONAPALEUN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2018ko abenduan ireki zituen ateak Tokiko Bio Ekoizpenak dendak Donapaleun. Proiektua martxan jartzeko buru-belarri arituak ziren eskualdeko hainbat laborari aurreko hilabeteetan: "2018ko udaberrian hasi zen proiektua sei laborariren artean. Pixkanaka bilkurak egiten eta laborariak biltzen joan ginen, eta dinamikaren bukaeran elkartea sortu eta saltokia ireki genuen zazpi laborariren artean", azaldu du Nicolas Mendiboure proiektuko kideak.

## HURBILEKO EKOIZPEN EKOLOGIKOAK

Elkartea osatzen duten zazpi laborarien produktuez gain, inguruko nekazari gehiagorenak ere eskaintzen dituzte Tokiko Bio Ekoizpenak dendan, batez ere ekoizpen ekologikoan diharduten nekazari txikienak. "Elkarteko gehienak hemengoak gara, urrunen daudenak Donapaleutik 20 kilometro ingurura daude", dio Mendibourek. Hori zen dendaren helburua: hurbileko laborari biologikoen ekoizpenak eskaintzea. Bertan ekoizten ez den urrunagoko produkturen bat ere badute salmentan, baina gutxiengoa dira.

Eskaintza zabala dute: barazki freskoak, ardi eta ahuntz gasnak, irinak, ogia, haragia, fruta, kontserbak, erreximentak, jogurtak, zukuak, garagardoak... "Hastapenetik erantzun ona izan dugu, baina egia da denborak aurrera egin ahala kostatu zaigula jendeari ulertaraztea laborari denda bat dela, ez dela supermerkatu handi bat eta dena beti eskura edukitzea ez dela erraza", esan du ekoizleak. Pixkanaka ohitzen omen doaz bezeroak, dena den, eta mugimendu geroz eta handiagoa dagoela dio.

## ELKARLANA OINARRI

Asteartetik ostiralera goizez eta arratsaldez eta larunbatetan goizez irekitzen dute Tokiko Bio Ekoizpenak denda. Langile bat kontratatua dute eguneroko salmentarako, baina elkarteko zazpi kideek ere dendako lanetan parte hartzen dute. "Gure produktuen salmenten arabera elkarteko kide bakoitzak sartu beharreko denbora kalkulatzeko modu bat daukagu: lanaren erdia kide guztien artean banatzen dugu, eta beste erdia berriz salmenta kopuruen arabera egiten dugu". Esaterako, Mendibourek barazki freskoak saltzen dituenez eta salmenta kopuru handiagoak dituenez, beste kide batzuek baino ordu gehiago sartzen ditu.

Egonkortzeko bidean dago Tokiko Bio Ekoizpenak denda, eta ez dute bestelako ekimenak antolatzeko aukera gehiegirik izan proiektuko kideek momentuz. Egitasmoa martxan jartzeko orduan inguruko beste elkarte batzuen laguntza jaso dute, Idoki Euskal Herriko Etxe Ekoizleen elkartearena batez ere. ●

# ‘Bertso Gudua’ revisited: Txirrita eta Basarri, Aitzolen begiradapean

1935eko San Sebastian egunez jokatu zen Lehen Bertso Gudua, egungo Bertsolari Txapelketen aurrekari nagusia. Puntako hogei bertsolari lehiatu ziren, Donostiako Kursaal Zaharreko Poxpolin aretoa leporaino beteta zegoela. Baina lehia hutsetik harago, egun hura historiara igaro da oholtza berean bertsolaritzaren bi eredu guztiz desberdin elkartu zirenekoa bezala: taberna giroan zaildutakoen bertso molde zirikatzailea, alde batetik, eta garaiko balioekin bat egiten zuen kantaera zuzen-zaleago bat, bestetik. Kontakizun honek hiru protagonista ditu: erreumak jotako Txirrita zahartua, gorbata jantzita datorren Basarri gaztea, eta Aitzol, Pizkundeko estratega, aberriaren espiritua berpizteko lainoak eta sasiak astintzeko prest dagoena.

KEPA MATXAIN



## 1. TXIRRITA EZ DA ANTZOKIAN KABITZEN

San Sebastian eguna da, 1935eko urtarrilaren 20a, eta Txirritak ohetik ohi baino goizago altxa behar izan du: Donostiako Kursaal Zaharrean –Euzko Gaztediren Poxpolin Aretoan– antolatu duten Lehen Bertso Guduan kantatzekoa da, inguruko beste hogei bat bertsolarirekin batera. Kontatu diote nola Aitzol eta konpainia aritu diren herriz herri bertsolariak probatzen, broma gutxirekin, hi bai eta hi ez, egun hartako hautaketak apartekoa behar omen duela eta, baina ez dira ausartu bera halako trantzetik pasaraztera. Besterik ez zuen behar, 75 urte betetzear, 140 kilo soinean, hankak izorratuta, hortzik gabe, eta apaiz kuadrilla horri bertsotan ba ote dakien erakutsi behar, gainera. Zer arraio ote darabilte bertsoarekin? Zer dela eta halako tema bertso gudu bat antolatzeko? Bizi guztian ez die kalparrik ikusi, eta orain, goizetik gauera, bertsotan ere aditu bihurtu ote dira? Ez da ha-

RICARDO MARTIN / KUTXATEKA

**1935EKO LEHEN BERTSO GUDUAN** kantatu zuten bertsolariak: ezkerretik eskuinera, aurreko ilaran, Lujanbio, Txapel, Txirrita, Zepai eta Basarri. Atzeko ilaran, Erauskin, Mintegi, Sarasola, Nekezabal, Tellaetxipi eta Abarategi.

rritzekoa: jainkoa eta aberria goratu bai, baina bere burua aldarera igotzen izan da azkarra beti sotanadun jende hori.

Altzatik Poxpolin Aretoko ateraino gerturatu dute, eta han jakin du gonbidatutako 22 bertsolaritatik bik –Aldaiak eta Zailpuruk– huts egin dutela. Berari honezkero kantatzea egokituko zaio, zer erremedio, baina begiratzen du oholtzara, begiratzen die foku eta eserlekuei –mikrofono-sistemarik ez da oraindik, arnasa betean kantatu beharra daukate–, eta iruditzen zaio etxean geratzeko egun ederra egiten duela. Bertsolari batzuk ezagutzen ditu, beste batzuen berri badu, eta badira aurreneko aldiz topatu dituenak ere. Han da Saiburu bere lehengusua; han dira Txapel, Alkain, Lexo eta Telleri-Txiki, behin baino gehiagotan kantukide izanak; han dira Etxeberria eta Sorozabal donostiarrak; azaldu da Pello Zabaleta errenteriarra, baita haren anaia Juan ere; Bizkaia aldetik ere etorri dira pare bat –Utarre eta Abarrategi "Besamotza"–, Lapurditik Matxin, eta Behe Nafarroatik Panpale; eta han da, Basarri deitzen dioten 21 urteko gazte zarauztarra ere, bere gorbata eta guzti. Aitzolek, isiltasun pixka bat eskatuz, joko-arauak azaldu ditu: bertso eta bertso artean txalorik ez, mesedez, saioa gehiegi luza ez dadin. 10:30ak jota hasi dira bertsolariak kantuan, aretoa jendez gainezka dagoela.

Epai-irizpideek ez dute zalantzarako tarterik uzten: "Oso txarrari 0; txar-xamarrari 5; on-xamarrari 10; onari 15; oso onari 20". Epaileek ere ez: Toribio Altzaga, Jose Olaizola, Manuel Lekuona, Joseba Zubimendi, Txomin Olano, eta, denen buru, Aitzol. Motzean esanda, EAJren kultur frontea osatzen duen jendea, Euskaltzaleak Elkartearen bueltan elkartutakoa. Txirritak ez dakizki hainbeste xehetasun, hark apaiz kuadrilla bat ikusten du, aretoko jende saldoaren artean, aurpegiera serioz berari begira. Eta, orduan, "euskara" gaitzat jarri diotelarik, hala kantatu du:

*Larogei urte gainean ditut*
*nago anketako minez.*
*Donostiara etorria naiz*
*erren andia eginez*
*bi bastoirekin txit larri nabil*
*pausorik eman ezinez*
*euskara ia aztu zait eta*
*erderarikan jakin ez*
*maixu batekin eskolan laster*
*asi bear det latinez.*

Azken puntua ebakitzearekin bat, Aitzol seinalatu du, "maisua" aipatzean harengatik ari dela jakitera emanez. Haiek algarak! Aitzolek saio hasieran emandako argibideak gorabehera, txalo zarta ederrak ere jo ditu hainbatek. Asmatu du, itxuraz, eserlekurantz jiratu denean Aitzol bera ere barrez sumatu baitu. Berak ez du bertsoa inori gustatzeko asmo hutsez bota, ordea. Zer kantatu behar zuen? Nola ez adierazi deseroso zaizkiola hango aparra eta bitsa? Koipelustre haien euskara berri hori ulertzeko nahiko lan duela? Bizi guztia bertsotan

aritu ondotik, lekuz kanpo sentitzen dela handipuzkeria haren erdian? Nola ez dio ba Aitzoli ezten txiki bat gutxienik eskainiko? Bai, "euskara" jarri diote gaitzat, baina Txirritarentzat gaia abiapuntu hutsa da, ez da kapaz unetik eta tokitik abstraitu eta euskarari buruzko orokorkeriazko zerbait jaurtitzeko, ingurukoekin komunikatzeko egiten du bertsotan, eta, han, une hartan, Aitzol eta enparauak ditu parean, eta, atzean, bertsolari talde kurioso bat, kantatzen dituenen erdiak ere ulertzen ez dizkion gorbatadun gazte bat tartean. Hark euskarari bota dionetako bat ulertu uste du Txirritak, gutxienik:

*Itxas ertzetik entzuten dira*
*ama euskeraren antsiak*
*ta bai dirala illun tristeak,*
*ene! bai negargarriak.*
*Nola kanpoan ala etxean*
*nunai badauzka etsaiak,*
*au oldoztuta malko trinkotan*
*betetzen zaizkit begiak;*
*bera iltzen bada ez du askorik*
*paltako Euskalerriak!*

Entzuleak arnasari eutsiz gelditu dira –txalorik ez, arren!–, baina lehertzear den eltzea dirudi aretoak. Epaileek ere ezin dute bozkarioa disimulatu: begiak diz-diz dauzkate paperean puntuazioa idazten duten bitartean. Horregatik, Txirrita ez da batere harritu, bazkalondoko sari-emate ekitaldian, Aitzolek Lehen Bertso Guduko txapeldun Basarri izendatu duenean, eta, beste guztiak bezala txalo jotzen ari zaiola, une batez, soinean daraman blusaren zimurrak ikusi ditu, inoiz baino argiago.

## 2. BASARRIK MISIO BAT DAUKA –ETA BADAKI–

Gau osoan ez du begirik bildu. Marka da, hainbeste denbora egun handiaren zain, eta orain ileak laztuta dago ispiluaren aurrean, zirin eginda. Edonork ikusita ere. Basarrik gaurkoa du lehen agerraldi ofiziala bertsolari bezala. Kantatu zuen Zestoan Erauskin errotariarekin, baina jende gehienak oraindik ez du bere alderdi hori ezagutzen –Azken-Portu tabernan-eta lagunartean kantari entzun izan dutenek salbu–. Bera kazetaria da, orain hiru urte pasatxo, 18 urterekin, ekin zion idazteari, eta egun hiru kazeta desberdinetan argitaratzen dira bere artikuluak: *Euzkadi*-n, *El Día*-n, eta *Argia*-n. Ez dira epelkeriarako garaiak: borroka bizia da euskaltzaleen eta espainolisten artean, eta Basarri ez da bere jendea bazterrean uzten duen horietakoa. Hizpide hartzen ditu Aberri Egunak, Euskal Estatutua, Euskal Idazle Batza, Euzko Langilleen Elkartea, Basarritarren Elkartea, eta, batez ere, euskara bera, aldarrikapen sendoz beti, eskaini dioten talaiatik jaurtitako mezuek gizartean aldez edo moldez eragingo dutelakoan. Eta hara orain, Basarri ausart eta segaila, Bertso Guduaren atarian trapu eginda. Gai izango ote da bere maila emateko?

Itxaropen handiak daude beragan jarrita. Egongo ez dira ba? Loreak besterik ez ditu jaso bere zutabeak direla eta –horietako asko gaur epaile lanetan ariko direnen ingurutik–. Baina ez da hori bakarrik. Gogoan du udazken aldera gertatua. Zarauzko lagun kuadrillarekin egun osoko ibilaldi bat egin ondotik, Donostian afaldu eta Euzko Gaztediren aretora bertaratu ziren. Giro lasaia zen han, jendea mahaietan eserita, kafea hartuz batzuk, musean bestetzuk, baina Zarauzko kuadrilla zintzurra ondo bustita zetorren, eta haiek atetik sartu bezain pronto aretoko dezibelio mailak gora egin zuen. Basarri azkar ohartu zen kontrasteaz. Ertz batean, Joseba Zubimendi eta beste batzuk bistaratu zituen, eta, haiengana bilduta, berriketa lasaian jarraitu zuen. Kuadrillako beste batzuk bera baino edan txarrekoagoak izan, ordea. Bat, bereziki. Han zebilen, orain salto eta orain brinko, orain garrasi eta orain keinu, lainezak jota, erabateko nabarmenkerian. Eta Basarri sutan jartzen du jende harroxkoak, behar den lekuan konposturak mantentzen ez dakienak. Amorru bizian, mahaitik altxa eta bertso bat bota zion:

*Aizazu gazte, lagun nerea,*
*zertan zabiltza horrela?*
*Ez al dakizu hainbat jaun prestu*
*hortik begira daudela,*
*era hortako jolasketarik*
*gutxi maitatzen dutela?*
*Egizu kontu zuk Donostiko*
*Euzko Gaztedin zaudela;*
*umekeriak baztartu itzazu*
*ta ibili gizon bezela!*

Akabo hango txoro-haizeak. Laguna kolpetik isildu zen, eta aretoak lehengo baretasuna berreskuratu zuen. Hura gogoratzean, Basarriri irribarre txiki bat atera zaio ispilu aurrean. Berak argi dauka: gazte hura bezala, bertsolari gehienak ere bide zuzenera ekarri behar dira. Lokaztegitik lokaztegira ikusten ditu, arlotekerian, elkar zankapetan darabiltela, nork astakeria handiagoa botako: hire andrea halakorekin ikusi diat, halako tabernatan utzitako zorrak ordaindu itzak, atzo ze ukuilutan lo eginda hatorren bazekiat, ez duk lapurretarako besterik balio, eta abar, eta abar. Behe mailako jendea, adimen osoa parekoa zanpatzera jarrita daukan zurrutero kuadrilla. Nola ez da jende jakintsu eta ikasia bertsolaritzatik urrun ibiliko? Uxatuko ez ditu ba taberna-zuloko kirats horrek? Dena dago aldatzeko bertso munduan. Eta nor bera baino aproposagorik, bertsoari dagokion prestigioa emateko?

Ondo daki lagun zarauztarrari botatako bertso hark zer zirrara eragin zien Zubimendiri eta konpainiari, eta nola, lehendik begiko bazuten, gaualdi hartatik aurrera ia miresmenez begiratzen dioten, gai izan zelako bertso soil batekin gazte buruarin hari kristau onak nola portatu behar duen erakusteko. Hala esaten omen zuten beren artean: zer gauza indartsua bertsoa! Zer aproposa gizartea bide onera ekartzeko! Zer baliagarria abertzaletasuna indartzeko! Bai, bide horretan segi behar du berak. Bertsoa tabernatik atera behar da, eta iritsi behar du antzokira, elizara, jatetxerik finenetara, plazetara, teatroetara, zinema-aretoetara. Bertsoa bidezidor estuetatik bide zabalera eraman beharra dago, eta, asmo horretan, bere sokakoak ditu gaur epaile lanetan ariko direnak.

Basarrik gorbata estutu du. Haizea alde dauka. Ezin du hutsik egin.

## 3. AITZOLEK ERREBELAZIO BAT IZAN DU

Entzuten ditu baina ez ditu entzuten. Bertsolariak kantuan ari direla bai, baina esaten dutena jarraitzeko lanak ditu Aitzolek. Ohi duenez, hegan egiten dio gogoak. Poxpolin Antzokia goraino betetzea lortu dute, eta hori ez da huskeria. Azken Olerti-Egunak txukun samar atera zaizkie, baina hau beste gauza bat da, inork ezingo du ekitaldiaren arrakasta zalantzan jarri, biharko egunkariek tarte zabala eskaini beharko diote honi. Saioa haste-

**AITZOL BURU ZUEN LEHEN EPAIMAHAIAK**
Basarri saritu zuen, bertsotan aritzeko molde jakin bati bultzada politikoa emanez.

rako konturatu da: gaurkoa garaipen bat da. Euskaltzaletasunaren garaipen bat, bai, baina baita garaipen pertsonal bat ere. Bost urte eskas dira Euskaltzaleak elkartean sartu zenetik, eta ikusi besterik ez dago ordutik elkarteak izandako bilakaera: dozenaka borroka fronte berri ireki ditu, sindikalgintzan, kazetaritzan, irakaskuntzan, argitalpen zientifikoen arloan, elebitasunean, eta, batez ere, kulturgintzan. Gaurkoa, zalantzarik gabe, urteetako lan eskergaren emaitza da, eta bozkariotsu dago, zeren Aitzol, oroz gain, intelektual organikoa da: teorizatu bai, baina batez ere emaitzak ikustea gustatzen zaio, eta azkar samar, ahal dela.

Sakon aztertu du erromantizismo kulturala. Ondo daki Europako beste gutxiengo nazional batzuetan zein garrantzitsua izan den literatura herritar axolagabeak suspertzeko eta kontzientzia linguistiko eta kulturala pizteko –Provenzan, Katalunian, Belgikan edota Finlandian–, eta nola horietako zenbaitek independentzia politikoa ere eskuratu duten –Finlandiak eta Txekoslovakiak, kasurako–. Irakurri du *Mireio* –Frédéric Mistralek proventzalez idatzia–, eta irakurri du *Kalevala* –Elias Lönnrot finlandiarrarena–, poema nazionalak biak, beren herrialdean sekulako arrakasta lortu dutenak. Berak Orixeri enkargatu dio poema nazionala, eta hark amaitzear daukan arren, irudipena dauka trenak alde egin duela jadanik, beste formula batzuk eskatzen dituztela garaiek. Horretan ez dauka parekorik: gizarteari pultsua hartzen, masen funtzionamendua aletzen, haiei eragiteko mekanismoak martxan jartzen, nagusi da Aitzol. Eta zerbaitek esaten dio –ingurura begiratzea aski du horretarako– poesia baino arma eraginkorragoa dela bertsoa. Dena du bentaja: eskuragarriagoa da, ez da hain jasoa, mezuaren inpaktua zuzenagoa da, komunitate zabalago batengana iristen da, eta, gainera, zenbait formatutan, liturgia kolektiborako osagai aproposak izan ditzake. Zer aproposagorik euskal espiritua berpiztu nahi duen batentzat?

Txirritak eskuin eskuz seinalatu duenean lurreratu zaio gogoa. Ederra bota dio: latinez ikasten hasi behar omen du berarekin. Aitzolek gogotik egin du barre. A zer tipoa, Txirrita. Zahartuxea dago, baina ederki egiten du bertsotan, berezko grazia horrekin. Bertsolaritzaren erorialdian bera izan da guztien eusle, buru, bihotz eta maisu. Aitortu behar zaio hori, zeren bertsolariak dauden artean, herriak bizirik jarraituko du, eta Txirrita bezalakoengatik ez balitz, nekez jarraituko luke transmisioak belaunaldi berrietan. Etorkizuneko bertsolaria, aldiz, talentu handikoa izateaz gain, herriaren beharrak zeintzuk diren ulertzeko gai izango da, eta bere aletxoa jarriko du haren mesedetan, oholtzak eskaintzen dion toki pribilegiatutik. Etorkizuneko bertsolaria ez da alferrik galduko ingurukoei ziri eta ezten merkeak jaurtitzen, aski zentzu izango du ohartzeko badirela norbere zilborra baino kausa goitiarragoak, eta proiektu kolektibo baten alde jardungo du, kultur erreferente ez ezik erreferente ideologiko ere bihurtuz. Etorkizuneko bertsolaria hemen dago, Basarrik kantatu berri duen bertso honetan:

*Bertsolariak eman diote*
*txeko erriari gorantza,*
*Mireio batek edergallutan*
*yosia zuen Provenza.*
*ene Yainkoa egin zaiguzu*
*guri bear den laguntza,*
*al dan azkarren sendatu zagun*
*gaixo dan euskel izkuntza.*

Txekiar herria, *Mireio*, Provenza, jainkoa eta euskal hizkuntza, bertso bakarrean sartuta. Aitzolek ez dauka zalantzarik, hori kantatzen duenak txapela merezi du. Eta berriro hegan egin dio gogoak, zeren gaurkoa garaipen bat da, garaipen pertsonal bat, bai, baina baita bertsolaritzaren garaipena ere. Bertsoa ulertzeko modu berri baten hasiera bezala oroituko da gaurko eguna, eta hori ez dakite entzule gaixoek, hori ez daki Txirrita gizajoak, ezta, oraindik, Basarri gazteak ere; oraintxe, areto osoan Aitzol bakarrik konturatu da horretaz, eta, kar bizi bat sentitu du urdail inguruan gora, garaiei aurrea hartzen dakiten apurrek sentitzen dutena bezalakoa.

## 4. EPILOGO BAT EASOKO BAR MANOLON

Txirritaren urdailarentzat ez dira aski bazkariko arroza, legatza, arkumea, eta gainontzeko zizka-mizkak. Arratsaldean, Bertso Guduko parte-hartzaile gehienekin batera, Easo kaleko Bar Manolora gerturatu da –Donostiara jaisten denetan ohi duenez–, eta barruak berdintzeko tripaki kazolakada bat eskatu du. Mahai txiki batean bakarrik jaten ari dela, bi gazte sumatu ditu urrundik begira. Azkenerako gerturatu eta, bietako batek, ez bat ez bi, bertsoa bota dio:

*Ederki kosta zaizu, Txirrita,*
*kaxuelka ori jatia,*
*tripaki-puxka pranko badezu*
*mai-pe ontara botia,*
*txakur onek gaur zure kontura*
*egin duan banketia!*
*Onentzat ez da gaizki etorri*
*zuk ortzik ez izatia.*

Sebastian Salaberria omen du izena, eta hogei urte eskas izango ditu. Txirritak isilik entzun du bertsoa. Gero, azken tripakiak zakurrari bota, blusa bildu, gazteari begietara begiratu eta kantuan hasi da. Ingurukoak batu zaizkie pixkanaka, eta isildu gabe aritu dira ondo ilundu arte. Hangoak amaitu eta Altzara bidean daramatela, Txirritak erabaki du datorren urtean ere itzuliko dela, ordurako lurpean sartzen ez badute behintzat. ●

LIBURUA

# Haltzak badu bihotzik

DANI BLANCO

**HALTZAREN MUINOA**
**ANJEL LERTXUNDI**
**ILUSTRAZIOAK: ANTTON OLARIAGA**
ELKAR, 2020

XABIER ETXANIZ ERLE

Haltz bat dugu obra honetako protagonista. Arbola bat; mundua ezagutu nahi duen arbola. Eta, denok dakigun bezala, arbola ezin da dagoen lekutik mugitu, ezin da itsasoraino joan, ezin ditu bidaiak egin... ala bai?

Muino batean dagoen haltza dugu protagonista, eta lehen ataletan (liburua orri bateko 96 ataletan dago banatuta) arbolak zer pentsatzen duen ikusiko dugu, zer sentitzen duen, nortzuk ibiltzen diren haltzaren inguruan, nola grabatu duen bihotz bat eta J-M inizialak jarri Martinek... Egoera, baina, erabat aldatzen da uholdeen ondorioz ur korronte batek haltza bota eta errekak daramanean. Hortxe hasten da abenturazko obra eta haltzaren ikuspegitik hainbat gertakariren lekuko izango gara. Nola salbatzen duten emakume bat helikoptero batetik, hutsik pasatzen den sehaskak haltzarengan sorrarazten duen tristura eta kezka, hildako animalien presentzia uretan eta, batez ere, urak erdi itota daraman mutil bat nola salbatzen duen arbolak. Izan ere gure haltza, esfortzu handiz, mutila dagoen lekuraino doa eta beste enborra eta adarrak eskaini dizkio itsasoraino berarekin batera joan dadin.

Atal laburrak dira, oso azkar irakurtzen direnak, eta ez bakarrik luzeragatik, Lertxundik hainbatetan erritmo bizia darabilelako baizik: "Helikoptero bat zeruan. Itsaso aldetik dator, ibaian gora eginez. Oso baxu dabil, uholdeak ekarritako hondamendiak neurtzeko altura egokian inondik ere". Eta horrek guztiak irakurtzen jarraitzera eramaten zaitu. Gainera, liburuan gertakariak, gogoetak, protagonisten hizketaldiak tartekatzen dira argumentuari arintasuna eta bizkortasuna emanez.

Haltzak bidaiatu nahi zuen, itsasoa ikusi eta bidaia horretan heriotza izan du gertu, baina baita mila abentura bizi; eta narratzaileak dioen moduan: "Damu du ibai ondoko muinoa abandonatu izana? Damua baino gehiago, nostalgia da".

Aipagarriak dira, baita ere, idazleen aipuak, Lizardi, Lete, Celan, Elissalde,... eta gure kulturako erreferentziak; eta, nola ez, Antton Olariagaren ekarpena. Ilustrazio ugari daude, zuri-beltzean, testuak dioena azaltzen, batzuetan modu argian, askotan hori baino gehiago iradokitzen. Eta bien arteko konbinazioak, testu jaso eta arinek, eta ilustrazio iradokitzaileek, are ederrago egiten dute bihotza duen haltz honen istorio zoragarria. ●

MUSIKA

# Berritu edo hil

Euskadiko Orkestra, besteak beste, Gemma New zuzendariarekin arituko da datorren denboraldian.

NASA / JOEL KOWSKY

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Ez da erraza egungo pandemia-egoeran –badirudi ez gaituela utziko datozen hilabeteetan– bizitza kulturalak bizirik jarrai dezan modua aurkitzea. Baina baditugu kultur erakunde batzuk ahalegin handia egin dutenak leku hori egiteko, bezeroak asetzeko eta berrikuntza zinez erakargarriak eskaintzeko.

Erakunde horietako bat Euskadiko Orkestra da. Irailaren 25ean hasiko da abonu-denboraldia Gasteizen. Osasun-eskakizunak betetzeko antolaketa -neurriak proposatu ditu, eta era berean, betiko kalitatea eskaini.

Lehen abonu-programan Schuberten bederatzi sinfoniak eskainiko dituzte, Hegoaldeko lau hirietan modu berezian banatuta. Alde batetik, saio bikoitzak eskainiko dira, 18:00etan eta 20:00etan, saio bakoitzera abonatutako publikoaren erdia joan dadin. Honez gain, saio bakoitzean sinfonia desberdinak eskainiko dira. Eta, gainera, programa ezberdinak izango dira hiri bakoitzean. Sinfonien koktel-ontzia beraz, planteamendu guztiz desberdina eta benetan erakargarria. Halere, ez dakit ziur formula horrek aforoa mugatzeko balioko duen edo guztiz kontrakoa. Saio guztietara eta hiri guztietara joatea izango da tentazioa, Schubert integral honetaz gozatzeko. Nolanahi ere, Euskadiko Orkestrak abonatuei jakinaraziko die zein egun eta ordutan joan daitezkeen, eta beraz, ezin izango da "tranparik" egin.

Bigarren programa, Wagnerri eskainitakoa, desberdina izango da hiri bakoitzaren arabera, eta formula nagusia egingo den programa kontzertu-egun bat gehiagoz zabaltzea izango da.

Antolaketa kontu horiez gain, argi dago Euskadiko Orkestrak erromantizismo musikalean jarri duela begirada denboraldi honetan. Schubert eta Wagnerrez gain, Schumannek ere protagonismo berezia izango du.

Gauza asko daude azpimarratzeko 2020-2021 denboraldian, baina gutxi batzuetan jarriko dut arreta. Garai erromantikoaren protagonismoaz gain, eta elementu interesgarri askoren artean, ezin dugu galdu *Elkano: Mundubira musika bidelagun* proiektua, joan den denboraldian hasi zena eta aurten titulu berriak eskainiko dituena.

Bestalde, aipatu behar dut hiru emakume zuzendariren presentzia: Ruth Reinhardt, Gemma New eta Anja Bihlmaier. Eskertzen da Euskadiko Orkestrak emakumea zuzendaritzan ikusarazteko egin duen ahalegina, gehienetan gizonek betetzen baitute zeregin hori.

Espero dezagun denboraldi arrakastatsua izatea. ●

# *Etxe orratzak sutan*

MARTA SENDIU IZAKI GARDENAK

Muinoko tontorretik, landa zabalera. Kale estu eta motzetatik, etorbide zabal eta luzeetara. Etxe zahar eta txikietatik, etxe orratz amaigabeetara. Areto itxi eta gaztetxeetatik, aire zabaleko kirol gunera. 2020ko uztailaren 29a da eta mundu mailako pandemia bat behar izan dugu Gasteizko Salburua auzoan eskaintza kulturalaz gozatu ahal izateko. Batzuentzat COVID-19aren albo-kalteetako bat izango da, baina beste askorentzat aspaldiko amets betea.

*Izaki Gardenak* taldea da gaurko zitaren protagonista nagusia, baina harekin batera normaltasun berriak ezartzen dituen osasun eta babes neurriek lagunduko dute. Berezia da gaurkoa, tokia ez da ohikoa, formatua ezezaguna eta egoera bitxia. Gasteizko periferiako auzo berrienetako futbol zelai publiko batean gaude, baina olana beltz batek inguratzen gaitu. Gonbidapenak agortuta daude, maskara derrigorrezkoa da eta ikusle bakoitzarentzat aulki bana dago.

Oskolei eta oskoletik ateratzeari zuzendutako diskoa da Gasteizko boskoteak gaurkoan aurkeztuko duena. *Dena oskol* izenburupean ezkutatzen da autoezagutzaren ideia, norberaren muga ezarriak edo askotan guk geuk geure buruari jartzen dizkiogunak uzteari buruz mintzo da diskoa. Bildumari izena ematen dion izenburu bera duen abestiak argi eta garbi azaltzen du barne bilaketa, abestiaren hasieratik bertatik: "*Susmoa da, baina, agian, hanka sartzeek ez dute balio jada ikasteko ere*".

Azken diskoko abestiekin batera konfinamenduko hilabeteetan sorturiko bi abesti berri aurkeztu dituzte. Izan ere, Jon Basagurenen taldeak ekainaren 14an *streaming* bidezko zuzeneko emanaldia eskaini zuen Gasteizko Jimmy Jazz aretoan, eta kontzertuaren aurreko astean egonaldia egin zuten han bertan. Oskol barruan emandako hilabete gogorretatik ateratako ondorioak eraberritzeko baliatu zituzten, oskola apurtzeko, bertatik ateratzeko, abesti berriei ere irteera emateko; gaurkoa izan da hori guztia plazara atera duten lehen aldia.

Udako ilunabar gorrixkarekin batera eman diote amaiera zuzeneko bereziari. Etxe orratzen artean ezkutatzen diren argi izpiekin batera agurtu dira taldekideak, baina Basagurenek haren gitarra eta ahots indartsuarekin eman dio amaiera gau-jaiari. Inolako tranparik gabe aditu dugu *Amaieratik hasi* diskoko *Eguzki izpiak* abestia. Zikoinen hegaldiekin batera heldu da udako iluntzea. ●

# *Hitz gezidunak*




**OTSAIL** / HARK

**EZ-OSOA** / MODU ATZIZKIA

**ADARTXO BERRI**

**FARDEL MULTZO** / MINDUTAKO ESNE PIKOR

**OHOLA** / BALIOETSI, ESTIMATU

**ERRATZ** / ARTEKA, TARTEKATUZ

**MENTURA, PATU** / INFUSIO BIZIGARRI

**EURI-JASA** / GAKO

**TULIOAREN SINBOLOA** / ARRASTAKA, HERRESTAN

**12 ERROMA-TARRA** / **PERTSO-NAIAREN IZENA**

**PERTSO-NAIAREN ABIZENA** / BILAU EZ DENA

**ITZULIAK EGINEZ** / ERABAT BUS-TITA

**BAT-BATEAN** / ORAMAHAIA

**AIAKO HERRI-TARRA** / EDONON, NONGURA

**501 ERROMATAR ZENBAKIZ** / USAINDU

**AZA MOTA**

**TANINO** / NIGERKO HIZKUNTZA

**KAIA** / MODURA

**MAGAL**

**BORROKA, LISKARRA** / NAFARROAKO HERRIA

**ARGONAREN SINBOLOA** / KULPA

**HERRESTAN, ARRASTAKA** / UNNILPEN-TIOAREN SINBOLOA

**ZEREGIN (ALDERAN-TZIZ)** / ZAKURRA

**NAFARROAKO BAILARA** / ... SITU, BERTAN

**TONA** / EZEZTAPEN

**MEGALITO** / ZAZPINAKO MULTZOTAN

**PARTETIK** / KILOA

**HERRI EDO HIRI BATEKO ETXE-MULTZO**

## *Sudokua*

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 8 | 1 | | 2 | 4 | |
| | | | | | | 1 | | 6 |
| | | 5 | | 9 | | | | 8 |
| | | 7 | | | 9 | 4 | | |
| | 8 | | | | | | 7 | |
| | | 1 | 3 | | | 8 | | |
| 1 | | | | 4 | | 9 | | |
| 2 | | 6 | | | | | | |
| | 7 | 9 | | 3 | 2 | | | |

## *5x5*

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Nekatu.
2. Lantu, kexu.
3. Dokumentu, txartel.
4. Hegazti mota.
5. Koipea.

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |
| | | | | |

**EBAZPENAK**

5X5:

1. UNATU
2. NEGAR
3. AGIRI
4. TARIN
5. URINA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 7 | 9 | 3 | 8 | 1 | 2 | 4 | 5 |
| 8 | 2 | 4 | 5 | 7 | 3 | 1 | 9 | 6 |
| 6 | 1 | 5 | 2 | 9 | 4 | 7 | 3 | 8 |
| 3 | 6 | 7 | 5 | 8 | 9 | 4 | 1 | 2 |
| 9 | 8 | 2 | 4 | 6 | 1 | 5 | 7 | 3 |
| 4 | 5 | 1 | 3 | 2 | 7 | 8 | 6 | 9 |
| 1 | 3 | 8 | 6 | 4 | 5 | 9 | 2 | 7 |
| 2 | 4 | 6 | 9 | 7 | 8 | 3 | 5 | 1 |
| 5 | 7 | 9 | 1 | 3 | 2 | 6 | 8 | 4 |

| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Z | A | Z | P | I | N | A | K | A | | A | U | Z | O | | | | | | |
| | M | E | N | H | I | R | | P | A | R | T | E | Z | | | | | | |
| E | R | R | U | N | A | | E | Z | K | O | A | | T | | | | | | |
| A | R | A | L | N | | N | A | R | R | A | S | | N | A | L | | | | |
| A | Z | A | L | O | R | E | A | | A | U | S | K | A | | | | | | |
| | T | A | N | U | | P | O | R | T | U | A | | | | | | | | |
| B | L | A | I | A | | A | K | O | A | | D | I | | | | | | | |
| | I | T | Z | U | L | I | K | A | | Z | A | N | K | | | | | | |
| T | E | | T | M | | X | | M | U | E | L | A | S | | | | | | |
| | Z | O | R | I | | | | T | R | U | X | U | | | | | | | |
| B | E | R | A | K | | | | L | A | P | A | T | S | | | | | | |
| | Z | | P | | | | | H | | T | | | I | | | | | | |

# *Laia Casadevall Castañé*

AMATASUN ASKEAK

## ERDITZE ERRESPETATUA

"Ttikia nintzenetik izan nahi nuen emagina. Etxeko erditzeekiko interesa izan dut betidanik, etxean erditzearen eta erditze-etxeen inguruko hainbat dokumental ikusi nituen eta argi nuen hor zegoela nire erronka profesionala. Ikasketetan murgildu nintzenean argi ikusi nuen etxeko erditzeetan bermatzen zela testuingururik hoberena emakumeok errespetuz erditzeko eta emaginok gure lana autonomiaz egiteko".

# "Sistemarentzako ekonomikoagoa da etxean erditzea"

Ama, emagina, dibulgatzaile zientifikoa, erditze errespetatuen aldeko aktibista eta edoskitze aholkularia da Laia Casadevall Castañé (La Gleva, Herrialde Katalanak, 1986). Ehunka erditze artatu ditu dagoeneko eta bere erronka emakumeek amatasun askeak izateko funtsezkoa den informazio objektibo, egiazko eta zientifikoa ahalbidetzea da.

**SAIOA BALEZTENA**

**Zer behar du etxean erditu nahi duen emakumeak?**
Hasteko, artatuko duen emagin bat. Behin konfiantzazko profesionala aukeratuta, gomendagarria da osasun zerbitzu publikoaren edo pribatuaren bitartez jarraipena egitea, beharrezkoak diren froga guztiak izateko. Emaginaren bisitak izango ditu egindako frogak jarraitu eta lotura sendotzeko.

**Noiz egiten duzu erditze plana? Nolakoa da prozedura?**
Haurdunaldiaren 37. astean emakumeak emaginaren lehen bisita jasoko du etxean; etxea ikusi, erditzerako materiala errepasatu eta erditze plana egiten dugu orduan, emergentziarik egongo balitz gertuen dagoen ospitalea ere kontutan hartuz. Aste horretatik aurrera emagina guardian egonen da, eta eguna iristen denean, emakumeak emagina kontaktatuko du bere etxera joan dadin erditzea laguntzeko. Behin haurra jaiota, emagina lau orduz gelditzen da bertan, erditzearen ondorengo zaintza eta beharrezkoak diren frogak egiteko. Ondorengo hilabetean etxean egiten ditu bisitak, amaren eta haurtxoaren bilakaera ikusi eta edoskitzearekin laguntzeko.

**Ospitalera joan behar izatea ohikoa izaten da?**
Lekualdaketa etxeko erditzeen %14an gertatzen da bakarrik, eta gehienetan ez da urgentea izaten, baizik eta analgesikoen beharrarengatik edo laguntza medikoa behar duten gelditutako erditzeengatik izaten da.

**Etxean erditzea estigmatizatuta dago: ez dela segurua eta arazorik balego bizitza osorako arrastoa utzi dezakeela erraten da.**
Tira, ezjakintasunean oinarritutako aurreiritziak dira. Ebidentzia zientifikoaren arabera, arrisku gutiko emakumeen etxeko erditzeak, emaginekin eta sistema integratzailearen laguntzarekin, ospitaleetako erditzeak bezain seguruak dira. Hori bakarrik ez, etxean erdituta emakumeak aukera gehiago du beharrezkoa ez den esku-hartzea saihesteko: episiotomiak, forzepsa edo zesareak, bertzeen artean. Era berean, azken azterketa sistematikoen arabera, zail-

MIREIA NAVARRO

"EMAGIN BATEN AUTONOMIAREN ETA ASKATASUNAREN ARABERAKOA IZANGO DA ARTATZEN DUEN EMAKUMEAREN AUTONOMIA ETA ASKATASUNA".

tasun obstetrikoak izateko aukera gutiago dago etxeko erditzean eta haurtxoek ospitalean jaiotzean dituzten arrisku berak dituzte.

**Zergatik estigmatizazio hori?**

Etxean erditzea emakumearen askatasunaren adierazpen osoa da. Emakumeen askatasuna gehien murrizten duten herrialdeak dira aukera hau gehien estigmatizatzen dutenak. Eta argi dago etxean erditzeak ez duela zertan guztion gustukoa izan behar, baina aukera horren aldeko apustua egiten duen familia errespetatzea ezinbertzekoa da, ospitalean jaiotzea bezain egokia eta segurua delako.

**Europako herrialde anitzetan ez bezala, Espainiako Estatuan osasun zerbitzuak ez du aukera hori eskaintzen.**

Bai, eta larriena da sistemarentzako ekonomikoagoa dela etxean erditzea. Horregatik, Europako herrialde anitz etxean erditzearen aldeko apustua egiten ari dira arrisku gutiko emakumeekin. Baina bai, hemen pribilegio bat da, familiak ordaindu behar duelako: 2.000 euro inguru. Hala ere, ospitalean erditzearen aurrekontua ikusita, ez da garestia. Kontutan hartuta, batez ere, prezio horren baitan sartzen direla haurdunaldiko bisitak, emaginaren guardia, artatzea, material guztia, erditze ondoko bisitak eta edoskitze aholkularitza. Erronka da aukera hau pribilegio bat izan ordez, emakume guztien eskubide bilakatzea.

**Erran izan duzu emaginaren ogibidea erabat lotuta dagoela herrialde bakoitzean emakumeok dugun autonomiarekin. Zer erran nahi duzu?**

Emakumearen eskubideak gehiago errespetatzen dituzten herrialdeak dira emaginetan gehien inbertitzen dutenak. Ezin dugu ahaztu emaginak garela emakumeen ugalketaren eta bizitza sexualaren erreferenteak, eta ondorioz, gure esku dagoela beren ugalketa eta sexu eskubideak errespetatzearen alde borrokatzea. Emagina izatea emakumeen ondoan egotea da, hartzen dituzten erabakietan laguntzea, errespetuz eta epaitu gabe. Emagin baten autonomiaren eta askatasunaren araberakoa izango da artatzen duen emakumearen autonomia eta askatasuna.

**Indarkeria obstetrikoa eguneroko ogia da oraindik ospitale publikoetan. Zenbateraino hobetu da testuingurua?**

Indarkeria obstetrikoa historikoki normalizatuta egon da, munduko herrialde guztietan eragin du. Duela guti arte ukatu egiten zen, eta ukazioak emakume gehiegik pairatu duten errealitatearen konplize bilakatzen gaitu. Pixkanaka-pixkanaka hobetzen ari da, praktikak eguneratzen ari dira eta emakumeek geroz eta argiago dituzte beren eskubideak. Baina zaila da, zaharkituta dauden praktika anitz normalizatuta daudelako oraindik, eta erditzean boterea emakumeak duela onartzea gaizki ikusita dagoelako. Haurdunaldia eta erditzea inguratzen dituen paternalismoarekin bukatzea zaila da. Bide luzea gelditzen da oraindik.

**Zein da zure ustez indarkeria obstetrikoarekin bukatzeko gakoa?**

Informazioa. Horregatik, ez naiz sekula nekatuko hedapena eta aktibismo egiteaz. Baina ardura ez da emakumeena, baizik eta sistemarena eta profesionalena. Funtsezkoa da formakuntza hobetzea, egungo informazio zientifikoan oinarrituta protokoloak gaurkotzea, profesionalek emakumeen eskubideak ezagutu eta errespetatzea, emaginetan inbertitzea eta ospitaleetako erditzearen monopolioarekin bukatzea. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

# Gurasoak, pozarren: “Ikasturte hasiera da sekula gertatu zaigun gauzarik zoriontsuena”

Ikasturtea hastearekin bat, berri-emaileak bidali ditugu eskola atarietara, bi multzotan sailka daitezkeen gurasoen sentipenak ezagutzeko. “Kezkaturik” eta “haserre” aurkitu ditugu gutxi batzuk, egoera berriak gain hartuta. Gehiengo isila, ordea, kilometroko irribarrea ahoan duela agertu da. “Ez, ez da Nekane Murgak kargua utzi duelako”, esan digu aita batek: “Gogorra da umeengandik aldentzea, panorama xelebrea dugu, baina zera, irakasleek ere lan pixka bat egin beharko dute, ala?”. Eta ama batek ihardetsi: “Berdin dit denbora guztia youtuber artaburuen bideo inozoak ikusten pasatzen badute, tik-tok koreografia txatxuak grabatzen, paretaren aurka errezatzen edo euskal gazte iraultzaile sozialisten zuhaitz genealogikoa aztertzen. Bost axola, baldin eta ikastetxean mantentzen badituzte”. ●

**SAREAN ARRANTZATUA**

## Laranja laranjaz egina

## Entzefalograma bezalaxe

# Atzerriko turisten jaitsiera konpentsatzeko, Loiu-Hondarribia hegaldiak bultzatuko dituzte

Euskal aireportuak kinka larrian daude COVID-19ak eragindako egoera dela eta: askoz jende gutxiagok bidaiatu du hegazkinez Euskal Herritik kanpora eta etorri direnen kopuruak ere beherakada handia jasan du. “Barne-turismora bideratuko ditugu gure ahaleginak”, azaldu dute euskal aireportuetako buruzagiek. Loiu-Hondarribia hegaldia izango da norabide berri horren erakusgarri nagusia: “Bizkaitarrek ere eskubidea dute Donostialdeko pintxo-eskaintzaz gozatzeko auto-pilaketarik jasan gabe. Pentsatzen baduzu, logika handia dauka hegaldi horrek”, esplikatu dio Beranduegiri, logikoki izena eman nahi ez duen ordezkari politiko batek. ●

Amul been nit ku leegalul
inor ez da ilegala

ARGIA

Artikulu hauek erosita ekarpen ekonomikoa egingo diezu **Mbolo Moye Doole**ren erresistentzia kutxari eta **Argia**ri.
Atera aldarria kalera euskaraz eta wolofez!

15€*
**KAMISETAK**

8€*
**POLTSAK**

14€*
**PAPE NIANG**
**HASIERA BERRI BAT**
LIBURUA

24€*
**JERTSEAK**
4 KOLORETAN

Eskaerak egiteko sartu: **AZOKA.ARGIA.EUS** edo deitu **943 37 15 45** telefonora

*Bidalketa gastuak 4€

2021a urteurren borobil ugarirekin
dator: 500 urte Noaingo batailak,
150 urte Parisko Komunak,
100 urte Sobietar Batasunak M8
emakumearen egun izendatu zuela,
25 urte Itoiz urtegiko kableak moztu
zitutela edo Hondarribiko alardean
emakumeak lehen aldiz atera zirela,
20 urte Al Qaedak AEBetako Dorre
Bikien aurkakoko atenatuarekin
mundua aho bete hortz utzi zuela.

Aurtengo formula baliatuz,
***egunero efemeride bat***
eskainiko dizugu datorren urtean ere,
burujabeak garenez,
historia guk ere idatz dezagun.

**AZOKA.ARGIA.EUS**
**943 37 15 45**

10€

+4€ BIDALKETA GASTUAK

*Eskuratu*

ARGIA **EGUTEGIA**